

Jarraipenerako txostena

2004 urtea



AURKIBIDEA

Or.

1. AURKEZPENA	6
2. LABURPENA ETA ONDORIOAK.....	11
3. IZARTU I PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA	17
3.1. 2004an GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEA ETA DESBIDAZIOAK	19
3.1.1. 2004an gauzatutako esku-hartzearen finantza-alderdiak	19
3.1.2. Programazioaren arabera desbidazioak	23
3.2. PROGRAMAREN AURRERAPENA BALIOESTEA, IKUSPEGI FUNTZIONALETIK ETA LURRALDEAREN IKUSPEGITIK.....	27
3.2.1. Programaren aurrerapena inbertsioaren arabera.....	27
3.2.2. Tokiko inbertsio-ahalegina eta jasotako diru-laguntzak	31
3.2.3. Programa balioestea ikustegi integraletik.....	33
3.2.4. Programak aurrera egiten laguntzeko neurriak.....	36
4. IZARTU II PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA	39
4.1. 2004an GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEA ETA DESBIDAZIOAK	42
4.1.1. 2004an gauzatutako esku-hartzearen finantza-alderdiak	42
4.1.2. Programazioaren arabera desbidazioak	46
4.2. PROGRAMAREN AURRERAPENA BALIOESTEA, IKUSPEGI FUNTZIONALETIK ETA LURRALDEAREN IKUSPEGITIK.....	50
4.2.1. Programaren aurrerapena inbertsioaren arabera.....	50
4.2.2. Tokiko inbertsio-ahalegina eta jasotako diru-laguntzak	53
4.2.3. Programaren aurrerapena ikustegi integraletik	55
4.2.4. Programak aurrera egiten laguntzeko neurriak.....	58

**5. HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO PROZESUEN AURRERAPENAREN
INGURUKO MEMORIA61**

**5.1. HELBURUETAN IZANDAKO AURRERAPENA: INBERTSIOA ETA
EGINDAKOA 66**

**5.2. HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO PROZESUETAN IZANDAKO EMAITZAK
ETA ERAGINAK 68**

5.2.1. Lurralde-integrazioa 68

5.2.2. Informazio eta komunikazioaren teknologia berriak barne hartzea 71

5.2.3. Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea 72

5.2.4. Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea 76

5.2.5. Hiriaren irudia eta egoera hobetzea 80

5.2.6. Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak84

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Or.

1. KAPITULUA. AURKEZPENEA

1. grafikoa: *IZARTU* programaren baten onuradun izan diren udalerriak 7
2. grafikoa: Guztira egindako inbertsioaren zerrenda eskualdeka 8

3. KAPITULUA. IZARTU I PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA

3. grafikoa: 2004an egindako gastua, urte horretarako programazioaren arabera 19
4. grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2004an egindako inbertsioaren egokitze-maila urte horretarako gastu-aurreikuspenen arabera 21
5. grafikoa: Eskualdeak. 2004an egindako inbertsioen egokitze-maila urte horretarako gastu-aurreikuspenen arabera 22
6. grafikoa: Jarduerak. Programazioaren araberrako desbidazioak. 2004. urtea 24
7. grafikoa: 2001-2004 aldian egindako gastua, guztizko inbertsioaren arabera 27
8. grafikoa: Egindako inbertsioaren ibilbidea konparatzea, 2001-2004 28
9. grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2001-2004 aldian egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera 29
10. grafikoa: Eskualdeak. 2001-2004 aldian egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera 30
11. grafikoa: Izartu programak daraman bidearen inguruko asetasunaren balorazioa 33
12. grafikoa: 2001-2004 aldirako Izartu programaren laguntza teknikorako gastua 36
13. grafikoa: 2004ko laguntza teknikoaren baitako jarduera nagusiak 37
14. grafikoa: 2004an Izartu programen baitan komunikatzeko, informazioa emateko eta hedatzeko erabilitako tresnak 38

4. KAPITULUA. IZARTU II PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA

15. grafikoa: 2004-2008 aldirako IZARTU programen zerrenda udalerrien eta eskualdeen arabera 41
16. grafikoa: 2004an egindako gastua, urte horretarako programazioaren arabera 42
17. grafikoa: Izartu I eta Izartu II programek lehen urtean egindako gastuen arteko konparazioa 43
18. grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2004-2008 aldirako IZARTU programek 2004an egindako inbertsioa 44

19. grafikoa: Eskualdeak. 2004-2008 aldirako IZARTU programek 2004an egindako inbertsioa	45
20. grafikoa: Jarduerak. 2004-2008 aldirako IZARTU programen programazioaren arabera desbidazioak. 2004. urtea.....	46
21. grafikoa: Eskualdeak. 2004-2008 aldirako IZARTU programen programazioaren arabera desbidazioak. 2004-2005.....	47
22. grafikoa: Udalerrriak. 2004-2008 aldirako IZARTU programen programazioaren arabera desbidazioak. 2004. urtea.	48
23. grafikoa: Izartu I eta Izartu II programek lehenengo urtean izandako aurrerapenen arteko konparazioa, guztizko inbertsioaren arabera..	50
24. grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2004-2008 aldirako IZARTU programek egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera..	51
25. grafikoa: Eskualdeak. 2004-2008 aldirako IZARTU programek egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera.	52
26. grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu programak daraman bidearen inguruko asetasunaren balorazioa	55
27. grafikoa: Izartu I eta Izartu II programek laguntza teknikoko jardueretarako aurreikusitako inbertsioen arteko konparazioa.....	58
28. grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu programen baitan 2004an egindako laguntza teknikoaren baitako jarduera nagusiak.	59
29. grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu programen baitan 2004an komunikatzeko, informazioa emateko eta hedatzeko erabilitako tresnak	60

5. KAPITULUA: HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO PROIEKTUEN AURRERAPENAREN INGURUKO MEMORIA

30. grafikoa: Izartu I eta Izartu II programen jardueren sailkapenen arteko konparazioa helburu orokorren arabera	65
31. grafikoa: Kohesioaren inguruko helburu orokorrak. 2001-2004 aldian egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera.....	66
32. grafikoa: Kohesioaren inguruko helburu orokorrak. 2001-2004 aldian egindakoa guztizko inbertsioaren arabera.....	67
33. grafikoa: Lurralde-integrazioa. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2004	68
34. grafikoa: IKTBak. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2004	71
35. grafikoa: Ingurumena. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2004.....	72

36. grafikoa: <i>Ekonomia-jarduera. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2004.</i>	76
37. grafikoa: <i>Hiri-kalitatea eta -ingurunea. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2004.</i>	80
38. grafikoa: <i>Ekipamenduak eta zerbitzuak. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2004.</i>	84

TAULEN AURKIBIDEA

Or.

1. taula: <i>2001-2004 aldirako IZARTU programetan aurkeztutako jardueren analisisa, esku hartzeko esparruen arabera. 2004. urtea.</i>	18
2. taula: <i>IZARTU programetan amaitutako jardueren analisisa, esku hartzeko esparruen arabera. 2004. urtea.</i>	35
3. taula: <i>2004-2008 aldirako IZARTU programetan aurkeztutako jardueren analisisa, esku hartzeko esparruen arabera</i>	40
4. taula: <i>2004-2008 aldirako IZARTU programetan amaitutako jardueren analisisa, esku hartzeko esparruen arabera. 2004. urtea</i>	57

1. AURKEZPENA

Izartu programak 2004an izan duen aurrerapena eta gauzatze-maila deskribatzen dituen txosten honek bi deialdiei dagozkien datuak biltzen ditu lehen aldiz. Izartu programaren lehen deialdia, 2001-2005 aldiari dagokiona, bere programazioaren azkeneko zatian doa. Bien bitartean, bigarren deialdian, 2004-2008 aldikoan, onartutako programak hasi besterik ez dira egin.

Deialdi batean eta bestean parte hartzeko baldintzak desberdin samarrak izan diren arren (horrek bi deialdien arteko konparazio zehatza egitea zailtzen du neurri batean), egiaz, Izartu programaren bidez lorpen ugari egin dira euskal udalerri askotan. Lorpen horiek azpimarratzeko modukoak dira, eta horrexegatik bildu ditugu txosten honetako kapitulutan barrena.

Programak udalerrien egoera hobetzeko egindako ekarpenaren berri ematen duten daturik azpimarragarrienak agiri honen sarrera modura aurkeztuko ditugu.

Hirialdeak biziberritzeko programa integralak, Izartu izenekoak, EAEren kohesioa du helburu orokor, lurraldearen, ekonomiaren nahiz gizartearen mailan. **Izan dituen deialdien bidez (2001-2005 eta 2004-2008) 88 euskal udalerritan ari da esku hartzen, hau da, hiru lurralde historikoetan ditugun udalerri guztien arteko %35en. Gainera, udalerri horietan bizi da biztanleriaren %84,8.**

Izartu programetan guztira egindako inbertsioa (119 programa egin dira 88 udalerri onuradunetan) 395 milioi eurokoa da. Izartuk 259 milioi hartu ditu bere gain, alegia, guztira egindako inbertsioaren %65,5. Izartu programa bakoitzeko batez besteko inbertsioa 3,2 milioi eurokoa izan da.

Izartu programa hirialdeak gizarte- eta ekonomia-mailan biziberritzeko eta lurraldetasunari begira berpizteko programak ahalbidetzen ari da hiru euskal hiriburuetan eta eskualdeko burutzat jo daitezkeen udalerri askotan.

Arabari dagokionez, 4 udalerritan finantzatu ditu programak; Gasteiz dugu horietako bat. Bide horretatik Arabako biztanleriaren %87 izan da Izartu programen onuradun zuzenean


nahiz zeharka. Ereku jakin batera mugatutako programa zehatz batekin hiriburuan esku hartzeak duen eragina alde batera utziko bagenu, arabarren %11,3 izango lirateke onuradun.

Bizkaian, aldiz, 48 udalerrian finantzatu ditu programak. Udalerrri horietan bizi da bizkaitarren %85,1. Arabaren kasuan bezala, Bilbaon esku hartzeak duen eragina alde batera uzten badugu (bertan 3 programa ari dira garatzen), alegia, beste 47 udalei bakarrik erreparatzen badiegu, lurralde historiko honetako biztanleriaren %54 da Izartu programaren onuradun, zuzenean nahiz zeharka.

Gipuzkoan, berriz, 36 udalerrian finantzatu ditu programak. Izartu programako esku-hartzeen proportzioa Bizkaikoaren antzekoa da. Hiriburua, Donostia alegia, barne hartuta, gipuzkoarren %84 dira berorren onuradun, zuzenean nahiz zeharka. Donostiaren eragina alde batera utzita (Donostian ere, Bilbaon bezalaxe, Izartu programak 3 programa lagundu ditu diruz), biztanleen %57,5 izan da onuradun, beste 35 udalerrietan.


Ondorengo mapan bildu ditugu Izartu programaren onuradun izan diren euskal eskualdeetako udalerriak:

1. grafikoa: IZARTU programaren baten onuradun izan diren udalerriak



Ondorengo mapan bildu dugu egindako inbertsioa eskualdeka:

2. grafikoa: Guztira egindako inbertsioaren zerrenda eskualdeka



Mapari erreparatuta ikusi ahal izango dugu zenbait euskal eskualdek egindako inbertsio-ahalegina. Horien artean ditugu honakoak: Ezkerraldea, inbertsio nabarmena egin duena, Nerbioi Garaia, Debabarrena, Durangaldea, Enkarterriak, Goierri eta Donostialdeko ekialdeko ingurabidea, 20 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egin dutenak azpimarratzen hasita.

Azpimarratzekoa da Izartu programaren bigarren deialdian lehenengo deialdian programarik izan ez zuten eskualdeak hartu direla barne, eta hori dela eta, inbertsioaren bolumena txikiagoa da. Hona hemen eskualde horiek:

- Arabako Lautada
- Debabarrena
- Donostialdeko ekialdeko ingurabidea

- *Urola Kosta*

Programak izan duen eragin positiboaren erakusgarri dugu bigarren deialdian programaren onuradun izan diren 28 udalerri lehenengo deialdian ere onuradun izatea. Izan ere, horrek esan nahi du onuradun izan diren udalerri guztien artetik %31,8 8 urtez izan direla Izartu programaren onuradun, alegia, 2001etik 2008ra.

Izartu programen baitan 593 jarduera egin dira guztira eta jarduera horietako bakoitzaren batez besteko inbertsioa 660.000 € ingurukoa izan da. Zuzenean jarduera horien onuradun izan den biztanleko (505.972 pertsona izan dira guztira) batez besteko inbertsioa 776 €koa izan da.

Zeharka esku-hartzeen onuradun izan diren udalerrietako gainerako biztanleria kontuan hartuz gero (milioi bat eta berrehun mila pertsona inguru), Izartu programaren inbertsio-ahalegina 350 €koa litzateke batez beste biztanleko.

Bi deialdietako jardueretako asko tokiko oinarritzko azpiegiturak hobetzera bideratutakoak dira. Zehatzago esateko, *antolatze eta birgaitze azpiegiturei* dagozkien esku hartzeko esparruetakoak dira, multzo honek diruz lagundutako jarduera guztien %50 inguru biltzen baitu bi deialdietan.

Gisa honetako jarduerak hartu ohi dira barne multzo horretan:

- *Hiri-azpiegiturak berriz urbanizatzea eta berritzea: hornidura eta zerbitzuko sareak.*
- *Espazio eta ekipamendu publikoak hobetzea, esate baterako, plazak urbanizatzea edo oinezkoentzat bihurtzea.*
- *Herrigune historiko, auzo eta eraikin berezietan hiri-irudia hobetzeko proiektuak.*
- *Hiri-bilbearekiko komunikazioak hobetzea: birgaitzea eta bide berriak sortzea.*
- *Hurbilerraztasuna hobetzeko azpiegiturak: eskailera mekanikoak, espaloiak eta ibilbideak hobetzea.*
- *Espazioa libratzea eta garapen komunitariorako ekipamenduz hornitzea hiri-inguruetako auzoak.*

Zehaztutako herriak edo eremuak ingurumenaren ikuspegitik hobetzearekin zerikusia duten jarduerak (*bizitegi-eremuetako enpresak lekualdatzea, industria-jarduera dela eta ingurumenaren ikuspegitik narriatutako eremuak leheneratzea, parkeak, ibaien ertzak, ibilbideak leheneratzea...*) bigarren izango lirateke, bai Izartu programaren baitan diruz lagundutako jardueren kopuruari begira, bai laguntzaren zenbatekoari begira.

Biziberritzeko eta leheneratzeko helburuei dagokienez, **nagusiki honakoak dituzte helburu jarduera gehienek: lurralde-integrazioarekin zerikusia duten arazoak konpontzea, hiri-jardueren ingurumen-eragina murriztea eta narriatutako edo/eta utzitako espazioak leheneratzea.**

Izartu programak bere osotasunean mugiarazi dituen inbertsio-datu nagusien inguruko aurkezpena egin ondoren, txostenak deialdietako bakoitzak, 1. deialdiak nahiz 2. deialdiak, izandako aurrerapen- eta gauzatze-maila deskribatuko du. Amaitzeko, balorazio kualitatiboa egingo da, ikusteko zenbateraino egin den aurrera programak finkatu dituen eta 88 udalerri onuradunek bere egin dituzten kohesioaren inguruko helburuak lortzeko bidean.

2. LABURPENA ETA ONDORIOAK

2004. urtean hasi ziren 2004-2008 aldirako Izartu programak. Lehenengo deialdian onuradun izan zirenen kasuan, berriz, 2004. urtea diruz lagundutako jarduera gehienak eta 2001-2005 aldirako Izartu programako jarduera gehienak gauzatzeko azkeneko urteetako bat izan zen.

Hori dela eta, ezin dira konparatu herri bakoitzean eta helburu edo esku hartzeko esparruetako bakoitzaren inguruan egindako inbertsioaren arabera izandako aurrerapenak. Horrenbestez, bereizi egin behar da mintzagai dugun urtean bi programek izan duten aurrerapenaren analisia. Bestalde, EAEn ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen mailako kohesio handiagoa lortzeko eta EAE gehiago egituratzeko bidean, alegia, bi deialdiek duten erronka gauzatzeko bidean, antolatutako laguntzen bidez lortutako emaitzei eta izandako eraginei erreparatu ahal izango diegu. Haatik, Izartu II programaren inguruko emaitza kualitatibo nabarmen samarrik ez dugunez, bi programak direla bide izandako eraginaren analisi hori hurrengo ekitaldietan egin beharko da. Hala eta guztiz ere, bigarren deialdi honetan kohesioaren inguruko helburu orokorreari dagokienez itxaro ditugun emaitza nagusiak aurreratuko ditugu txosten honetan.

Bada, Izartu I programei dagokienez, 2004ko ekitaldian aurreko urteko, hau da, 2003ko ibilbideari jarraitu zaio, jarduerak egoki gauzatuz, izan ere, lehenengo urteetan programak abian jartzea atzeratu zuten traba gehienak gainditu dira eta egiaztatu ahal izan da programak gauzatzeko erritmoa gero eta azkarragoa dela, programa horiek aurrera egin ahala.

2002an (Etxabarri) eta 2003an (Bilbao Otxarkoaga eta Ermua) amaitu ziren 3 Izartu programez gain, 2004an beste hiru udalerriki amaitu dituzte beren programak (Bilbao Zaharra, Mungia eta Gūeñes). Programa ia erabat gauzatzekotan dira (dagoeneko inbertsioaren %80 baino gehiago eginda) beste hainbat udalerri: Leioa, Irun, Deba, Mutriku, Soralue, Legazpi, Ordizia, Urretxu, Zegama, Balmaseda, Gordexola, Tolosa, Karrantza, Loiu, Muskiz eta Portugalete Azeta.

Guztira Izartuk diruz lagundutako 313 programetatik 126 amaitu dira (guztizkoaren %40), eta horietako gehienak hirialdeak antolatze eta birgaitze esku hartze esparruaren baitakoak dira.

Programen bide onaren erakusgarri da, halaber, egindako gastua urterako aurreikusitako inbertsioarekin bat etortzea neurri handi batean, 2004ko ekitaldirako programazioaren %80 inguru bete baita. Aurtengo gastua 38 milioi euro ingurukoa izan da, eta jardueren %24tan bakarrik izan da desbidazioen bat gastua aurreikusitakoa baino txikiagoa izan dela eta. Gehiago izan dira aurreikusitako gastuaren arabera superabita izan duten jarduerak. Horri dagokionez, azpimarratzekoa da 2004an tokiko arduradunek hainbat aldaketa egin dituztela jardueren jatorrizko programazioetan. Kasu batzuetan kudeaketa sinplifikatu egin da programetan barne hartutako jarduerak bateratu direlako. Beste kasu batzuetan, aldiz, bazter utzi dira zenbait jarduera, bideragarri ez zirelako edo lehentasunik ez zutelako, jatorrizko programetan zeuden beste batzuen edo horietan barne hartutako proiektu berrien mesedetan.

Emaitza on horiek alde batera, nabarmentzekoa da inbertitzeko erritmoa ez dela berdina izan udalerri guztietan, eta oraindik badituagu atzeratzen ari diren zenbait programa, Zumarraga, Donostia Loiola, Eibar, Zaldibar, Barakaldo Gurutzeta, Ortuella, Ondarroa eta Pasaiaren kasuan, esate baterako. Horiek berandutzea jarduerekin zerikusiren bat duten administrazioek edo bestelako erakunde publikoek dagozkien baimenak ez ematearen ondorio da oraindik ere kasu gehienetan. Tokiko agintariak aurkeztutako txostenek islatzen dutenez, elkarrekiko mendetasun horrek sortutako eragozpen gehienak konpondu dira jada eta hurrengo urteetan programa aurreikusi bezala gauzatzea espero da (8 udalerri luzapena eskatu dute).

Nolanahi ere den, Izartu I programan barne hartutako jardueretako batzuk atzeratzeak ez du udalerri onuradunek oro har egin duten bide ona lausotu behar. **2001-2004 aldian ekimen osorako aurreikusitako guztizko inbertsioaren bi heren gauzatu dituzte ia udalerriek.** 2004ko ekitaldian inbertitzeko egindako ahaleginak (hori aurreko urteetan egindako ahaleginari gehitu behar zaio) 132.841.347 €ko inbertsio metatua ahalbidetu du. Zenbateko hori guztizko aurrekontuaren %60 da, 221.537.288 €koa baita guztizko aurrekontua.

Gipuzkoa eta Bizkaia dira aurreratuen doazen probintziak. 2001-2004 aldian guztira egindako inbertsioa guztizko inbertsioaren %61ekoa da bien kasuan. Araba dugu azkena, %43ko inbertsioa baitu. Eskualdeei erreparatuz gero, *Bilbaok*, *Eskuinaldeak* eta *Plentzia-Mungiak* amaitu dute, eta beren programak laster osatzekotan dira *Tolosaldea*, *Enkarterriak* eta *Bidasoa Behea*. Aitzitik, honakoak dira atzeratuen doazenak: *Markina-Ondarroa* (%9), *Donostia-San Sebastian* (%30), *Ezkerraldea* (%38), *ekialdeko ingurabidea* eta *Gernika-Bermeo* (%45 bietan). Aurreko ekitaldiekin konparatuta, aurrerapauso nabarmena eman dute *Arratia-Nerbioi* (%67) eta *Txoriherri* (%57) eskualdeek.

2004-2008 aldirako Izartu programen hasierako datuei dagokienez, aurrerapena Izartu I programaren onuradun izan ziren udalerriek lehenengo urtean izandakoaren antzekoa izan da. 2004-2008 aldirako Izartu programen onuradun diren 68 udalerriek 2004an egindako gastua 8.218.368 €koa da. Inbertitzeko ahalegin hori aldi osorako aurreikusitako programaren guztizko inbertsioaren %5en parekoa da. Programaren lehen deialdiaren onuradun izan zirenek guztizko inbertsioaren %6 gauzatu zuten beren ibilbidearen lehen urtean.

2004an egin beharreko gastuaren aurreikuspenak aztertuz gero (1.3 milioi €), **nabarmen gaitu da lehenengo urterako aurreikusitako plangintza**. Izartu II programaren lehenengo bi urteetarako programatutako gastua kontuan hartuta (30.063.163 €), 2004an gauzatutakoarekin bakarrik 2004 eta 2005 urteei dagokienaren %27 gastatu da. Izartu I programaren lehen bi urteekin konparatuta (kasu horretan plangintzara gutxiago egokitzeak erakutsi zigun zenbat denbora behar zen tamaina honetako jarduerak abian jartzeko), aurrerapen hori harrigarria irudi dakiguke. Haatik, azalpena aurreikusitako gastua txikiagoa izatean datza nagusiki (1,3 milioi € Izartu II programan eta 30 milioi € aurreikusita Izartu I programan). Gainera, kontuan izan behar da udalerrien %40 2001-2005 aldirako Izartu programaren onuradun ere izan direla eta eskarmentua antzematen dela. Horrezaz gain, tokiko zenbait arduradunek nabarmendu dutenez, diruz lagundutako jardueretako batzuk berehala gauzatzea premiazkoa zen, eta hori da proiektuetako asko aurreratzeko arrazoi nagusietako bat.

Bizkaia da gehien aurreratu den lurraldea. 5.301.295 €ko gastua egin du, hau da, aldi osorako guztizko inbertsioaren %6. Ondoren dugu Gipuzkoa, inbertsioaren %4 gauzatu baitu, hots, 2.870.360 €. Arabak, berriz, 46.713 €ko gastua egin du 2004an, alegia,

guztizko inbertsioaren %1. Eskualdeei erreparatzen badiegu, *Arratia-Nerbioik, Bilbaok* eta *Enkarterriek* aurreikusitako guztizko inbertsioaren %20 gainditu dute. *Ezkerraldeak* %12, *ekialdeko ingurabideak* %10, *Txoriherri* eta *Urola Kosta* eskualdeek %8na, eta *Markina-Ondarroak* %7.

Bigarren deialdi honetan onuradun izan diren udalerrietako arduradunek programa abian jartzearen inguruan egindako balorazioa oso baikorra izan da, batez ere biztanleria onuradunaren artean sortu diren iguripen eta ilusioak direla eta, jarduera gehienak hasi besterik ez baitira egin. Bestalde, balorazio positibo hori agerian uzten dute 2004-2008 aldirako izartu programek beren ibilbidearen lehen urtean izandako emaitzek.

77 jarduerari ekin zaie 2004an. 77 jarduera horiek 55 udalerriki hasi dituzte. Beraz, horrek esan nahi du bigarren deialdiaren onuradun izan diren programen %80tan ekin zaiola jardueraren bati edo batzuei. Horrezaz gain, oraindik goiz bada ere udalerriek beren programak amaitzeko (hasierako aldia besterik ez baita oraingoa), oro har ikus daiteke Izartuk onartutako 280 jardueretatik **7 amaitu direla 2004an eta horietan milioi 1 euro baino gehiagoko inbertsioa egin dela.** Honakoak dira amaitutako jarduerak egin dituzten udalerriak: Iurreta, Elorrio, Artzentales, Bilbao, Bergara, Turtzioz eta Igorre.

Bi Izartu programen onuradunek lortutako inbertsio-bolumena nabarmena izan dela kontuan izanik, inbertsio horrek oso eragin mesedegarria izango du EAE osoan lurraldearen, ekonomiaren eta gizartearen mailako kohesioa lortzeko. Izartu programak bi deialdietan xede izan dituen kohesioaren inguruko helburu orokorreari dagokienez, honakoak izan dira lortutako eta itxarotako emaitza eta eragin nagusiak:

- **Lurralde-integrazioa:** Eragina nabarmena da hiri-bilbearen kohesioan eta egituratutako sare hurbilerraza ari da sortzen (auzoen, eremuen eta horien eta hiriguneen arteko lotuta). Hurbilerraztasuna nabarmen hobetu da azpiegiturak hobetzeari esker eta traba arkitektonikoak kentzearen bidez, horiek pertsonen eta ibilgailuen joan-etorriak errazten baitituzte.

Nabarmenezkoa da 54.324 m²-ko espazio publikoa gaitu dela, 58 km bide hobetu direla eta oinezkoentzako eta ibilgailuen trafikorako 10.000 m lineal sarbide berri sortu direla. 2004-2008 aldirako Izartu programen bidez espero diren emaitzen artean ditugu bidegorri, igarobide, pasagune, arrapala berriak eta 202.000 m²-ko bide-azaleran eragina izango duten esku-hartzeak eta birgaituko diren 38 km bide eta sarbide.

- **IKTBak:** Helburu honen inguruko eragina dela eta, IKTbak erabiltzea errazten duten azpiegiturak eta lokal eta ekipamendu berriak ari dira sortzen bereziki. Horrekin batera, lan-munduratzeko zailtasunak dituzten taldeei nahiz enpresei IKTBen inguruko prestakuntza eskaintzeko hainbat programa ari dira ezartzen. 2004-2008 aldirako Izartu programen baitako jarduerak zuntz optikoa jartzera eta udal-zerbitzuak digitalizatzea bideratutakoak dira. Zuntz optikoa 20 km baino gehiagotan instalatzea eta udal-administrazioako zerbitzuen %100 IKTBen bidez eskaintzea lortu nahi da.
- **Ingurumena:** Narriatutako inguruneak leheneratzearekin zerikusia duten eraginak dira herritarrek gehien balioesten dituztenak: iraunkortasunaren aldeko ekimenak, esate baterako, narriatutako eremuak leheneratzea, hiri-azpiegiturak berritzea, enpresak lekualdatzea eta industria-aurriak kentzea, natur inguruneak (ibaiak, bidexkak...) hobetzea eta leheneratzea eta ingurumen-kontzientziazioa sustatzea. Emaizta nagusi gisa azpimarratzekoak dira erabilera publikorako leheneratutako 120.659 m², berritutako hornidura eta zerbitzuetarako sareen 4.000 m lineal, 2.822 m lineal pasealeku, natur ingurunean, ibaien ertzetan eta leheneratutako edo/eta egokitutako kanaletan. Izartu II programei dagokienez, 1.134.931 m²-ko azalera esku hartu nahi da. Azalera horren erdia inguru (472.000 m²) libratutako eta berriz egokitutako espazio publikoa izango da (oinezkoentzako azalera, lorategiak eta parkeak).
- **Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta ondarea:** Emaizak tokiko ekonomia-jardueran ikus daitezke, negozio-aukera berriak sortzen laguntzeari begira (mintegiak, eraikinak hirugarren sektoreko —kulturako eta gizarteko— jardueretarako birgaitzea) nahiz lehendik ere baziren enpresei begira (zerbitzuak, enpresaburu eta saltokietarako ikastaroak). 30.000 m²-ko azalera egokitu da produkzio-jarduerak garatzeko, 46 pabilioi eta lokal eraiki edo/eta berriz egokitu dira, 60 enpresa-proiektu berriri eman zaio laguntza eta prestakuntza-ikastaroetan eta enplegu-programetan parte hartu duten 526 lagun izan dira onuradun. Ikus daitekeenez, merkataritza biziberritu egin da, herriguneak birgaitzearen bidez, horiek oinezkoentzako bihurtzeko ekintzen bidez eta hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko ekintzen bidez. Izartu II programari esker, enpleguak (200) eta enpresa berriak (70) sortuko direla aurreikusi da, betiere mintegien bidez, berariazko sektore batzuk sustatzearen bidez eta lehendik zeuden enpresak

ekipamendu eta zerbitzu berriak direla medio laguntzearen bidez (ekonomia-jarduera laguntzeko 24 ekipamendu berri, 118 ikastaro eta zerbitzu gaitu, 500 enpresa onuradun baino gehiago eta 1.400 onuradun).

- **Hiriaren itxura eta egoera:** Hiri eta herri askoren itxura, erakargarritasun sozioekonomikoa eta bertan bizi direnen ongizatean eta bizi-kalitatean eragiten duten baldintzak nabarmen hobetzea lortu da. Hirialdeak (galtzadak, trabak kentzea, hurbilerraztasuna areagotzea, zerbitzu-sare berriak...) dagoeneko leheneneratu dira hainbat auzotan eta udalerrri onuradunen erdiguneetan, eta horrek eragin biderkatzailea izan du ekonomia-jardueran, hautemandako aurrerapena dela eta adoretutako jardueran. Horiek horrela, honakoak azpimarra ditzakegu: 324 birgaitze (etxebizitzak eta eraikinak), berriz urbanizatutako 58.646 m²-ko azalera, zerbitzu-sareen 20.000 m lineal berritzea, oinezkoentzat bihurtutako 4.000 m lineal eta hirigintza-trabak kentzea eta hurbilerraztasuna ahalbidetzeko baldintzak hobetzea 12 udalerritan. 2004-2008 aldirako Izartu programei begira, 20.000 m lineal berri zerbitzu eta hornidurarako kanalizatuko direla aurreikusi da, eta 350.000 m² baino gehiagoko azalera urbanizatuko da berriz hainbat auzo eta erdiguneetako kaleetan.
- **Zerbitzuak eta ekipamenduak:** Honakoak dira zerbitzu eta ekipamendu berriak eskaintzearen bidez izandako eragin nagusiak: giza eta gizarte-mailan garatzeko aukera-berdintasuna areagotzea, batez ere kaltetuen diren taldeen artean; herritar guztien garapen komunitariorako aukerak hobetzea; eta hirugarren sektoreko ekonomia-jarduera garatzea. Zuzkidura eta zerbitzu berrietan 68 lanpostu berri sortu dira, eraikitako 14.515 m²-ko azalera egokitu da eta erabiltzaileen kopurua urteko 30.767 pertsonakoa izatera iritsi da. Izartu II programari dagokionez, hainbat eraikin eta lokal hirugarren sektoreko ekipamenduetarako bihurtzeko jarduerak ditugu helburu honen baitan. Gainera, 20.000 m² baino gehiagoko azalera bideratu nahi da gizarte- eta kultura-erabileretarako.

Ondoren aurkeztuko dugun txostenak laburpen honetan labur adierazi ditugun programen aurrerapenen berri emango du, xeheago.

3. IZARTU I PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA

Kapitulu honetan 2001-2005 aldirako Izartu programak nola gauzatu diren eta esku-hartzeko esparruetako bakoitzean eta Hirialdeak Biziberritzeko Programa Integralaren onuradun izan diren lurraldeetan zein aurrerapen-maila ahalbidetu duten aztertuko dugu.

Horrenbestez, honakoa analisi teknikoa da, sailkapen funtzionalari -ardatzei eta neurriei- eta lurraldearen arabera -eskualdeei eta udalerriei- jarraiki egindakoa eta plangintza aurreikusitakoa 48 programatan (Etxebarriko Izartu programa 2002an amaitu zen eta Bilbao Otxarkoaga eta Ermukoa 2003an) nola garatu den, esku-hartzeak nola gauzatu diren eta, laburbilduz, ekimen honek zein bilakaera izan duen argituko duena. Analisi honen xede izango da programaren arduradunei tresna teknikoak, plangintzaren ingurukoak, etengabe dagokion errealitatera egokitzea ahalbidetzea, aurreko urteetan bezalaxe.

Gogoan izan sailkapen funtzionala IZARTU programek esku hartzeko esparru orokorretan (5 ARDATZ) eta berariazkoetan (20 NEURRI) aurkeztutako jardueren multzo homogeneoan oinarritzen dela eta laguntzen aplikazio globalaren jarraipena eta analisisa egiten laguntzea duela xede. Bestalde, lurraldearen arabera sailkapenak programaren onuradun diren eskualdeei eskaintzen die arreta. Eskualde horien baitako 48 udalerri ditugu eta EAE osoan barrena kokatuta daude, hiru lurralde historikoetan: Araban *Kantauri Arabarra*, Bizkaian, *Nerbioi Garaia*, *Arratia-Nerbioi*, *Bilbao*, *Durangaldea*, *Enkarterriak*, *Gernika-Bermeo*, *Eskuinaldea*, *Ezkerraldea*, *Markina-Ondarroa*, *Plentzia-Mungia* eta *Txoriherri* eta Gipuzkoan *Bidasoa Behea*, *Debabarrena*, *Donostia*, *ekialdeko ingurabidea*, *Goiherri* eta *Tolosa*.

Aurreko urteekin erkatuz gero, bada alde nagusi bat: jarraipena egiteko jardueren kopurua txikiagoa da. 2002an eta 2003an gauzatu ziren jarduerak alde batera utzita (horiek aintzat hartuko ditugu guztira finantzatutakoa zenbatzerakoan), alde hori bateratu egin diren programen baitako jardueren kudeaketa sinplifikatzearen ondorio da kasu gehienetan. Beste kasu batzuetan, berriz, jardura batzuk alde batera uztearen, bideragarri ez izatearen edo beste batzuek baino lehentasun gutxiago izatearen ondorio, aurrerago ikusi ahal izango dugunez.

2002an 368 jarduera izan genituen eta 2003an 350. **2004an, berriz, guztira 338 jarduera finantzatu dira Izartu programaren baitan, horietan egin diren programazio-aldaketen ondorioz.** Kopurua txikiagoa izateak ez du desberdintasun esanguratsurik eragin jarduerak ardatz eta neurrien arabera banatzeko garaian. Horietako gehienak **2. ARDATZEKOAK** (tokiko oinarrizko azpiegiturak), *2.5 Antolatze eta birgaitze azpiegiturak* deritzan neurriaren baitakoak, ditugu oraindik ere.

1. taula: 2001-2004 aldirako IZARTU programetan aurkeztutako jardueren analisia, esku hartzeko esparruen arabera. 2004. urtea.


ARDATZAK ETA NEURRIAK	JARDUERAK 2004. URTEA	
	Kop.	%
1. ARDATZA. PRODUKZIO-INGURUNEA ETA ENPLEGUA	31	%9
1.1. Jarduera laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea	9	%3
1.2. Produkzio-azpiegitura sortzea eta garatzea	4	%1
1.3. Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea	8	%2
1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea	10	%3
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	245	%73
2.1. Garraio-azpiegiturak	21	%6
2.2. Telekomunikazio-azpiegiturak eta informazioaren gizartea	5	%1
2.3. Energia-azpiegiturak	1	%0
2.4. Ingurumen-azpiegitura	22	%7
2.5. Antolatze eta birgaitze azpiegiturak	147	%43
2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegitura	11	%3
2.7. Aisia- eta kultura-azpiegitura	36	%11
2.8. Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegitura	2	%1
3. ARDATZA. GIZA BALIABIDEAK ETA GIZARTE- INTEGRAZIOA	30	%9
3.1. Lan-merkatuko politikak	8	%2
3.2. Gizarte-integrazioa	9	%3
3.3. Aukera-berdintasuna	7	%2
3.4. Hezkuntza eta prestakuntza	6	%2
4. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK SORTZEA ETA GARATZEA	7	%2
4.1. Tokiko oinarrizko zerbitzuak	6	%2
4.2. Hiritarren segurtasuna	-	-
4.3. Hiri-hezkuntza eta -prestakuntza	1	%0,3
5. ARDATZA. BESTE HAINBAT	25	%7
5.1. Laguntza teknikoa	25	%7

3.1. 2004an GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEA ETA DESBIDAZIOAK**3.1.1. 2004an GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEAREN FINANTZA-ALDERDIAK**

2001-2005 aldirako 48 Izartu programek 2004an egindako gastua 37.904.667 €koa izan da. Inbertsioa 2001eko eta 2002koa baino handiagoa izan da, horietan 14.110.979 €ko eta 34.539.508 €ko inbertsioa egin baitzen hurrenez hurren. Alabaina 2004ko zenbatekoa aurreko urtekoa (alegia, 2003koa) baino txikiagoa izan da, orduan 46.286.193 €koa izan zen eta. Urte hauetan zehar udalek inbertitzeko egindako ahalegina 132.841.347 €ko gastu metatuak islatzen du (inbertsioaren %60 egin da).

Bide horretatik, onuradunek berek egindako gastuaren programazioa proiektuetan egindako inbertsio errealararen abiaduraren arabera izan da neurri handi batean. Gisa horretan, 2004rako programatutako gastuaren (49.330.525 €) %80 inguru gauzatu da.

3. grafikoa: 2004an egindako gastua, urte horretarako programazioaren arabera.



Bestalde, inbertitzeko erritmoa ez da berdina izan esku hartzeko esparru eta udalerri guztietan. Kasu batzuetan atzeratu samar jarraitzen dute oraindik. Dena dela, atzerapen hori neurri handi batean arindu da aurten amaitu diren eta hasierako iguripenak gainditu dituen inbertsio erreala izan duten jarduera eta programetako askok izan duten aurrerapen handia dela eta.


Esku hartzeko esparruetako aurreikuspenekiko egokitze-mailari dagokionez, ondorengo neurrietan barne hartutako jarduerak izan dituzte 2004. urtean zehar programaziora egokitzeko zailtasun gehien: 1.3 Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea, 1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea, 2.1. Garraio-azpiegiturak, 2.2. Telekomunikazio-azpiegiturak eta informazioaren gizartea 2.7. Aisia- eta kultura-azpiegitura eta 2.8. Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegitura. Bestalde, aurreko urteetan atzeratuen zebiltzan 3. ARDATZEAN eta 4. ARDATZEAN barne hartutako neurriak bultzatu dira: 3.4. Hezkuntza eta prestakuntza, 3.2. Gizarte-integrazioa, 4.1. Tokiko oinarritzko zerbitzuak eta 4.3. Hiri-hezkuntza eta -prestakuntza.

Horrezaz gain, beste neurri batzuk ondo egokitu zaizkio urteko plangintzari, eta kasu askotan gainditu egin da 2004rako programatutako inbertsioa, honakoetan barne hartutako jardueretan, esate baterako: 1.1. Jarduera laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea, 1.2. Produkzio-azpiegitura sortzea eta garatzea, 2.3. Energia-azpiegiturak, 2.4. Ingurumen-azpiegitura, 2.7. Aisia- eta kultura-azpiegitura, 3.3. Aukera-berdintasuna eta 4.3. Hiri-hezkuntza eta -prestakuntza. Gastu-superabit hori behar bezala balioetsi behar da, aurreko urteetan aurrekontua gauzatzerakoan metatutako atzerapenaren ondorio izan daitekeelako, baita tokiko udalbatzak inbertitzeko askoz ahalegin handiagoa bere gain hartzearen ondorio ere, eta hori ezin zaio egotzi Izartu ekimenaren baitako proiekturako aurreikusitako inbertsioari.

Beren urteko aurrekontua gainditu dutenak alde batera, gainerako jardueretan neurri handi batean egin dute bat plangintzarekin. Jardueren zati handiena eta inbertsio-bolumenik handia horiek dutenez, 2004. urteko gauzatze-maila altua izan dela esan dezakegu.

Ondorengo taulak eta grafikoak aurreikuspenak nola garatu diren erakusten du, egiaz gauzatu denaren arabera.

4. grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2004an egindako inbertsioaren egokitze-maila urte horretako gastu-aurreikuspenen arabera.




Lurraldearen ikuspegitik begiratuta, programen aurrerapena ez da berdina izan lurralde eta eskualde guztietan. Arabako lurralde historikoan (bertan Kantauri Arabarra da eskualde bakarra) gauzatu da gutxien programazioan jasotako aurrekontua, %56 gauzatu baita. Gipuzkoan eta Bizkaia, berriz, %77koa eta %80koa izan da, hurrenez hurren, plangintzarekiko egokitze-maila.

Programazioetan aurreikusitakoa gainditu duten eskualdeak honakoak dira: Tolosa (%270), Donostia (%118), Txorierri (%113), Arratia-Nerbioi (%108), Bilbao (%108), Enkarterriak (%107). %100en ingurukoak ditugu honako beste hauek: Debarrena (%91), Nerbioi Garaia (%87), Eskuinaldea (%98) eta Ezkerraldea (%80) eta Plentzia-Mungia (%92).

Haatik, eskualde horien baitan udalerri guztiek ez dute modu berean jokatu. Esate baterako, programen %33k gainditu dituzte 2004rako aurrekontu-aurreikuspenak, honakoek hain zuzen ere: Mendaro, Mutriku, Donostia Altza eta Loiola, Ordizia, Urretxu, Zegama, Tolosa, Basauri, Urduña-Orduña, Bilbao Zaharra, Karrantza, Muskiz, Portugalete Azeta, Santurtzi eta Loiu. Aitzitik, programen %36 asko desbideratu dira 2004rako aurrekontu-aurreikuspenetik. Honakoek programatutakoaren erdia baino gutxiago gauzatu dute: Zaldibar (%0), Zumarraga (%0), Ondarroa (%2), Trapagaran (%11), Gernika (%12), Barakaldo Gurutzeta (%16), Portugalete San Roke (%19), Pasaia (%23), Ortuella (%23), Galdakao (%34), Lezo Oartzun (%38), Llodio (%44) eta Legazpi (%49).

5. grafikoa: Eskualdeak. 2004an egindako inbertsioaren egokitze-maila urte horretako gastu-aurreikuspenen arabera.



3.1.2. PROGRAMAZIOAREN ARABERAKO DESBIDAZIOAK

Aurreko atalean esandakotik ondoriozta daiteke 2004. urtean zehar 2003ko ibilbideari jarraitu zaiola, eta 2004an programak abian jartzeko lehen urtean baino desbidazio gutxiago izan direla, programazioaren arabera.


Bestalde, kapitulu honen hasieran jada aurreratu dugunez, plangintzara gehiago egokitzea tokiko arduradunek programazioan egindako eta Eusko Jaurlaritzak onartutako aldaketei zor zaie. Horri dagokionez, 2004an aurreko urteetan baino eskari gehiago jaso dira epeak luzatzeko (beste aldi batean egin beharreko inbertsioa jardueren bidearen arabera egokiagoa moldatzeko) eta aldaketak egiteko jardueren artean, alegia, aurrekontu batzuetatik besteetara aldatzeko edo zenbait jardura bertan behera uzteko eta/edo barne hartzeko (kudeaketa sinplifikatzearen, jarduerak bideragarri ez direlako bertan behera uztearen edo beste jardura batzuk lehenestearen ondorioz).

Hortaz, 2005ean epeak luzatzeko eskaera gehiago jasoko direla uste badugu ere, aurtengo ekitaldian lehenengo deialdiko Izartu programetako 8k eskatu dute gauzatzeko epeak luzatzeko. Bestalde, 11 programatan utzi dira bertan behera jarduerak. Horietako batzuetan beste jardura batzuk garatu dira Izartu ekimenaren baitan, baina kasu gehienetan gainerako jardueretarako aurrekontuak handitu dira. Bestalde, 16 programatan onartu da aurrekontuan barne hartutako zenbatekoak jardura batzuetatik besteetara aldatzea, jardueren errealitatearen arabera egokiagoak diren inbertsio-aurreikuspenen ondorioz.

Aldaketa horien eta jardueren norabide onaren ondorioz, eta Izartu programei ekiterakoan udalerriek izaten dituzten eragozpenetako gehienak gainditu ondoren, 170 jarduerari ekin zaie (jardura guztien %50 ingururi, laguntza teknikoa eskaintzeko jarduerak alde batera utzita) eta 2004rako ekonomiaren aldetik aurreikusitakoaren arabera gauzatu eta egin dira.

Bestalde, desbidazioaren bat izan duten 143 jardueren arteko %45etan desbidazio horiek programazioaren araberako gastu-superabitarekin dute zerikusia. %43tan gastu txikiagoa izateari zor zaizkio desbidazioak eta %10ek baino ez dute zerikusia oraindik inolako gasturik eragin ez duten jarduerekin.

6. grafikoa: Jarduerak. Programazioaren araberako desbidazioak. 2004. urtea.



Programatutakoa baino gastu handiagoa egitea aurreko urteetatik metatutako atzerapenen ondorio da, aurreko ekitaldietan bezala (Donostia Altza eta Loiola, Urduña-Orduña, Portugalete Azeta, Loiu...) baita jardueretan oro har aurreikusitakoa baino gehiago inbertitzearen ondorio ere (Mendaro, Mutriku, Ordizia, Urretxu, Bilbao Zaharra, Basauri, Tolosa,...). Izan ere, horrek askotan aurrekontu-aldaketak dakartza berekin, hurrengo urteetako jardueraren aurrekontua handitzeko. Bestela, gehiago inbertitzeko ahalegin hori udal-aurrekontuek hartuko dute beren gain. Kasu batzuetan, **jarduerak programatutako aldia baino lehen gauzatzeari zor zaio** gastu handiagoa izatea (Zegama, Karrantza, Leioa,...).

Aitzitik, atzeratuen doazen jarduerari erreparatzen badiegu, **14 jardueratan ez da inolako gasturik izan oraindik** (nahiz eta Izartu programa gauzatzeko aldiaren laugarren urtean egon). Jarduera horiek 2004ko ekitaldiko programazioari begira nahiz aldi osorako aurreikusitako guztizko inbertsioari begira **atzeratuen doazen Izartu programak dituzten udalerrietakoak dira**.

Honako Izartu programak ditugu egoera horretan: Zumarraga (bere programaren guztizko inbertsioaren %1 gauzatu du), Donostia-Loiola (%3), Eibar (%4), Zaldibar (%6), Portugalete San Roke (%7), Barakaldo Gurutzeta (%8), Ortuella (%9), Ondarroa (%9) eta Pasaia (%16).

Jarduera horien atzerapenak jarduerekin zerikusiren bat duten administrazioen edo bestelako erakunde publikoen baimenak ez izatearen ondorio izaten jarraitzen du kasu gehienetan:

- *Zumarragaren kasuan, jarduera bakarra barne hartzen duen Izartu programa dute, eta egoerak konpondu gabe jarraitzen du, ezin izan dutelako akordiorik lortu*

aurreikusitako obraren lurren titularrekin eta oraindik ez delako beste aukerarik proposatu.

- *Donostia-Loiola programak aurreko urteetako atzerapena du metatuta, batez ere ez delako lortu gainerako programak abian jartzea baldintzatzen duten jarduera garrantzitsuenetako bi egiteko beharrezko baimenik. Hona bi jarduera horiek: ekaitzetarako tanga eta saneamenduko sarea berritzea (Añarbeko Mankomunitateak, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Uren Zuzendaritzak, Konfederazio Hidrografikoak eta Ingurumen Ministerioko Kostalde Zuzendaritza Nagusiak onartzearen mendekoa) eta Loiolako Barne Erreformako Plan Bereziko udal-inbertsioa (irismen handiko hirigintza-espeditentea, udalaz gaindiko beste erakunde batzuen akordio eta baimenak behar dituen). Amaitzeko, jarduera hau desagertu egin da Izartu programatik eta udalak epea luzatzeko eskatzea erabaki du, 2005 eta 2006 urteetan gainerako jarduerak gehiago gauzatuko dituela aurreikusita.*
- *Eibarren Matsaria eremua leheneratzeko ekintza, bertako Izartu programaren ardatz dena, bi eremu barne hartzen dituen proiektu handizalea da: zatiko plan baten bidez garatu beharreko sektore urbanizagarri industrial bat eta BEPB baten bidez leheneratu beharreko hiri-lurzor industrial bat. Hasieran aurreikusitakoaren arabera, Matsariako SAPUI urbanizatzeko lanek 2002an hasi behar zuten, baina gora-behera ugari direla eta —hainbat administrazio-espeditente behin betiko onartzea atzeratzea— ezinbestekoa izan da laguntzen programa 2007 arte atzeratzea eta inbertsioen inguruko aurreikuspen berria egitea (berriz programatzea 2004ko abenduaren 29ko erabakiaren bidez onartu zen eta luzapena, berriz, 2004ko abenduaren 30eko erabakiaren bidez).*
- *Zaldibarri dagokionez, ekintza nagusiak beharrezkoak diren baimenak lortzera eta obrei ekiteko ezinbestekoak diren lurrak eskuratzeko kudeaketak egitera bideratutakoak izan dira. Gauzatu ez den aurrekontua hurrengo ekitaldietarako izango da.*
- *Portugalete San Rokeko programak izan dituen eragozpenek dokumentu teknikoak idazteko zailtasunekin izan dute zerikusia, aurreikusitako obrek metroaren 2. linean eragiten dutelako. Interferentzia horiek maila teknikoan konpondu dira (2004ko*


- apirileko Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren zuzendariaren ebazpena), eta horrek gauzatzeko proiektua onartzea eta abian jartzea ahalbidetu du. Finantziazio-koadroa 2005 eta 2006ko ekitaldietarako berriz programatzeko eskatu da.*
- *Barakaldo Gurutzetako programaren baitan hainbat jarduera aldatu dira. Horietako batzuk Bizkaiko Foru Aldundiak eskatuta, foru-errepide batean eragiten baitzuten. Atzerapen hori izan bada ere, dagoeneko lortu dira lehen baimenak (Uztailaren 26ko 4153 Foru Agindua, Herri Lan eta Garraio Sailarena), eta horrek programa betetzen lagunduko du, nahiz eta programa gauzatzeko lanak 2006 arte luzatuko diren. Gainerako jarduerak ere abian jarri dira.*
 - *Ortuellaren kasuan berandutzea RENFErekin eta Obra Publikoetako Ministerioarekin proiektua egiteko baimenaren inguruan akordioa lortzeko premiari zor zaio. 2004ko ekitaldian RENFEren baimena lortu da eta lanak Contrata U.T.E. Balzola-Fonorte deritzan enpresari esleitu zaizkio; dagoeneko hasi da esku hartzen.*
 - *Ondarroan ere izan du eraginik esku hartzeko aurreikusitako lurren titularrekin izandako negoziazioak. Haatik, 2004an lurren jabetzaren inguruko kudeaketak egin dira eta dagoen urbanizazio-proiektua berriz kalkulatu da. Obrak ere esleitu dira. Une honetan ekialdeko faseko lur-mugimenduak eta hondeaketa esleitzen ari dira eta obrek martxa ona daramate.*
 - *Amaitzeko, Pasaiaiko programak udalean adostasuna (jardueretako batzuk definitzerakoan eta udal-aurrekontuak zehazterakoan) lortzeko premia dela eta izan ditu trabak neurri handi batean, baita lurrik erabilgarri ez izatearen ondorioz ere (zeregin hori portuko agintaritzaren eskumenekoa da). Navalaldea garatzeak ere izan du zerikusirik. Tokiko agintariek adierazi dute traba horiek gainditu direla eta gauzatu ez diren inbertsioak 2005erako programatuko direla berriz.*

3.2. PROGRAMAREN AURRERAPENA BALIOESTEA, IKUSPEGI FUNTZIONALETIK ETA LURRALDEAREN IKUSPEGITIK

3.2.1. PROGRAMAREN AURRERAPENA INBERTSIOAREN ARABERA


2001-2004 aldian 2001-2005 aldirako Izartu programaren onuradun izan diren udalerriek ekimen osorako aurreikusitako guztizko inbertsioaren bi heren gauzatu dituzte ia. 2004ko ekitaldian egindako ahalegin ekonomikoak (ezin dugu ahaztu aurreko urteetan egindako ahalegina) 132.841.347 €ko metatutako inbertsioa ahalbidetu du, alegia, 221.537.288 €ko guztizko aurrekontuaren %60.

7. grafikoa: 2001-2004 aldian egindako gastua, guztizko inbertsioaren arabera.



Ibilbide historikoari begiratzen badiogu, programetan zehaztutako gauzatzeko erritmoa azkartuz doa, programek aurrera egin ahala, aurreko ekitaldian (2003. urtean) gertatu zenaren bidetik. Programen atzerapenen arrazoi nagusiak gainditu egin dira. Izartu programen lehen deialdiak (2001-2005) orain arteko bidea egin ondoren, ia alde batera utzi dira bideragarri ez ziren jarduerak (aurreko atalean zehaztu ditugu berriz programatutakoak eta aldaketak egiteko eskaerak). Hori dela eta, gainerako proiektuetara eta proiektu berrietara bideratu dira ahaleginak. Hala ere, badira oraindik prestatutako esku-hartzeak geldiarazten dituzten trabak konpondu ez dituzten zenbait programa (Zumarraga).


8. grafikoa: Egindako inbertsioaren ibilbidea konparatzea, 2001-2004.



Aldi honetan izandako aurrerapena ez da berdina izan esku hartzeko esparru guztietan. Oraindik ere **3. ARDATZA** da atzeratuen doana. **4. ARDATZAK** aurrerapen handia izan du ekitaldi honetan, %69 gauzatu baita. **1. ARDATZEAN** barne hartutako jarduerak programa osorako aurreikusitako inbertsioaren bi heren gaintitu dituzte. Ondoko neurrien baitako jarduerak burutu dira: 2.8 Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegitura, 2.3 Energia-azpiegitura. Bestalde, lortzeko zorian dira honakoak: 2.2 Telekomunikazio-azpiegiturak eta informazioaren gizartea (guztizko inbertsioaren %83 gauzatuta) eta 2.7 Aisia- eta kultura-azpiegitura (%74). Ardatz honen baitan ondorengo neurrietan barne hartutako jarduerak dira atzeratuen doazenak: 2.1 Garraio-azpiegiturak eta 2.6 Gizarte- eta osasun-azpiegitura.

1. ARDATZEAN (PRODUKZIO-INGURUNEA ETA ENPLEGUA), 1.2 Produkzio-azpiegitura sortzea eta garatzea neurriaren baitan barne hartutako jarduerak erabat gauzatzeko zorian dira, inbertsioaren %89 egin baita dagoeneko. Egoera berean daude 1.1 Jarduera laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea neurriaren baitakoak ere, %71ko inbertsioa egin delako. ARDATZ honen baitan atzeratuen doazen jarduerak 1.3 Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea neurrikoak ditugu, 3.4 Hezkuntza eta prestakuntza, 4.1 Tokiko oinarritzko zerbitzuak neurrien kasuan bezalaxe aldi osorako guztizko gastuaren heren bat besterik ez baita gauzatu. Amaitzeko, aurreko ekitaldiekin konparatuta jauzi kualitatibo handiena izan duen neurria 4.3 Hiri-hezkuntza eta -prestakuntza deiturikoa dugu, ia amaitu baita, guztizkoaren %93 gauzatuta, nahiz eta egiaz jarduera bakarra hartzen duen bere baitan.

9. grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2001-2004 aldian egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera.




Lurraldearen ikuspegitik begiratuta, datuak aurreko urteetan ikusi ahal izan dugun bide beretik doaz. Gipuzkoa eta Bizkaia dira aurreratuen doazen lurraldeak, metatutako gastua (2001-2004) inbertsio guztiaren %61ekoa izan baita bi kasuetan. Azkena Araba dugu, %43 gauzatu baitu.

Eskualdeei erreparatzen badiegu, dagoeneko amaitu dute *Bilbaok*, *Eskuinaldeak* eta *Plentzia-Mungiak*, eta beren programak burutzetik hurbil ditugu honako eskualdeok: *Tolosa*, *Enkarterriak* eta *Bidasoa Behea*. Atzeratuen doazenak, aldiz, hauexek ditugu: *Markina-Ondarroa* (%9), *Donostia* (%30), *Ezkerraldea* (%38), *ekialdeko ingurabidea* eta *Gernika-Bermeo* (%45narekin). Aurreko ekitaldiekin konparatuta aurrerapauso nabarmena eman dute *Arratia Nerbioi* (%67) eta *Txoriherri* (%57) eskualdeek.

Udalerriei dagokienez, aurreratuen doazen programei erreparatuko diegu, desbidazioei buruzko kapituluaren eskaini genielako arreta atzeratuen doazen programei. Hori dela eta, **ekitaldi honetan burutu dira Bilbao Zaharreko, Güeñeseko eta Mungiako programak, Etxebarrikoa, 2002an amaitu zena, eta Bilbao Otxarkoaga eta Ermuko programak, 2003an amaitu zirenak, ahaztu gabe.** Beste zenbait tokitan ere amaitu da programa, Leioaren kasuan esateko baterako, baina egiteke dago 2005eko laguntzaren ordainketa. Hortaz, horrelakoak ezin dira amaitutzat jo, administrazio ondorioetarako.

10. grafikoa: Eskualdeak. 2001-2004 aldian egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera.



Beren programak dagoeneko amaitu dituzten udalerrri horiez gain, honakoak ere beren programak erabat burutzetik hurbil daude (guztizko inbertsioaren %80 baino gehiago gauzatu dutela eta): Irun, Deba, Mutriku, Soraluze, Legazpi, Ordizia, Urretxu, Zegama, Balmaseda, Gordexola eta Portugalete Azeta.

3.2.2. TOKIKO INBERTSIO-AHALEGINA ETA JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK

2001-2004 aldian egindako gastutik, %30 udalek egindako inbertsio-ahaleginari zor zaio: gutxi gorabehera 40 milioi euroko inbertsioa egin dute. Onuradun guztiek ez dute ahalegin berdina egin, hori baterako finantziazioaren tasaren arabera baita. Izan ere, oro har, dekretuak diruz lagun daitekeen inbertsioaren %50eko laguntza ezartzen du, kaltetu gisa sailkatutako eskualdeetako udalerrien edo eremuen kasuan izan ezik, horietan laguntza %75ekoa izango baita.

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartutako diru-laguntzaren ehunekoa handia bada ere, aipatzekoa da tokian tokiko ekonomia-ahalegina erabilitako zenbatekoek adierazten dutena baino handiagoa izan dela, programak ez baitu inbertsioen BEZ aintzat hartzen, eta hori tokiko erakundeek hartu behar dute beren gain. Horrek esan nahi du udal-aurrekontuen bidez inbertitutako 40 milioi euro horiei zerga horri dagokiona gehitu behar zaiela, eta zenbateko horri udalak egin behar dio aurre bere osotasunean. Horrezaz gain, lehen ere aurreratu dugunez, programa batzuek hasieratik bertatik dute Izartu programaren baitan emandako zenbatekoa baino handiagoa den kostua. Egoera hori, gainera, orokortzen ari da, dagoeneko amaitu diren jardueren emaitza ekonomikoak ikusita ondoriozta daitekeenez. Horren guztiaren eraginez, **aldi honetako eta gelditzen den zatiko inbertsioaren bolumena jarraipenerako txostenetan eskainitako datu ekonomikoena baino handiagoa izango da**. Horrek agerian uzten du, berriz ere, udalbatzek hirialdeak biziberritzeko prozesuen inguruan hartutako konpromisoa.

Bestalde, programa bateragarri da beste diru-laguntza eta laguntza batzuekin, gainerako administrazio eta erakunde publikoetatik etor daitezkeenekin, baita Jaurlaritzatik bertatik etor daitezkeenekin ere, eta hori kasu batzuetan oso lagungarri izaten da udalak finantzatu behar duen zatiari aurre egiteko.

Programak gauzatzen emandako lau urte hauetan guztira 9.779.295 euro jaso dira Izartu programaren baitan barne hartutako jardueri laguntzeko bestelako laguntza edo diru-laguntzen bidez. Zehatzago esateko, 2004an aurreko hiru urteetan (2001-2003) baino %31 gehiago lortu da diru-laguntzen bidez. Zenbateko hori guztira egindako gastuaren %7,4 baino ez bada ere, tokiko inbertsioari begira, ordaindutakoaren %24 izan da.

25 programa inguruk jaso dituzte laguntza horiek, nahiz eta egiaz 52 jarduerari buruz baino ez garen ari, ekimen honen baitan finantzatutako 313 jardueren artean. Horrezaz gain, jarduera horien guztizko kostuari dagokionez, bestelako diru-laguntza horiei dagokien inbertsioa %23koa izan da batez beste.


Bestalde, ez da hautematen "aparteko" laguntza horiek esku hartzeko esparru jakin batzuetara bideratu direnik. Aitzitik, neurri guztien artean banatu dira, inola bereizi gabe. Haatik, jardueren tipologiari begiratzen badiogu, ikusi ahal izango dugu ondorengo neurrien baitakoak direla diru-laguntza gehien lortu dituzten jarduerak: 2.5 Antolatze eta birgaitze azpiegiturak, eta horien ondotik 2.7 Aisia- eta kultura-azpiegiturak, eta 2.1 Garraio-azpiegiturak.

Lurraldeen eta eskualdeen artean ere ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten jasotako zenbatekoaren, laguntzak jasotzearen eta diruz laguntzen duten erakundeen arabera. **Foru-aldundietatik eta Eusko Jaurlaritzatik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saitetik bereziki, datoz bitarteko gehienak.** Dena dela, azpimarratzekoak dira, halaber, INEMen, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren nahiz Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren programak eta FEDER fondoak.

3.2.3. PROGRAMA BALIOESTEA IKUSPEGI INTEGRALETIK

Programak aurrera nola egin duen ikusita eta bere osotasunean hartuta, **tokiko arduradunen ustez aurreko urteetan baino hobea izan da jardueren bidea**. Onuradunen %79ren aburuz (37 programari buruz ari gara) oso positiboak izan dira ekimenean izandako parte-hartzea, jarduerak gauzatzeko erritmoa eta ezarritako helburuak betetzeko bidean izandako emaitzak. Bestalde, udalerrien %17k ez dute iritzirik eman. Iritzirik eman ez duten horien arteko gehienak 2004an beren programak atzeratuta izan dituztenak dira. Beste erdien ustez, gauzatutakoa ez da itxaro zutena izan, aipatutako atzerapenak eta elkarrekiko mendetasunak direla medio, nahiz eta ekimenak aukera bikaina eskaini beren herrietan kohesio sozioekonomikoa eta lurralde-kohesioa lortzeko.

11. grafikoa: Izartu programak daraman bidearen inauruko asetaren balorazioa



Tokiko arduradunek azpimarratu dute gatazka nagusiak konpondu direla eta zenbait udalerri azpimarratu dute "...*hasiera batean sortutako zailtasunak dagoeneko gainditu direla...*" eta proiektuetako asko abian jartzea eragozten zuten trabak pixkanaka gainditu direla. Horrezaz gain, azpimarratu dute herritarren assetasun-maila altua hasi direla hautematen jardueretako asko gauzatu direnean: "...*izan ere, herritar guztien onurarako diren hainbat esparrutan jardutea ahalbidetzen du...*", "...*herritarrek ikusi ahal izan dute proiektuak nola gauzatu diren eta ongizate-maila oro har nola hobetu den...*".

Balantzea oso positiboa izatea jarduerak garatzearen ondorioz lortutako emaitzei zor zaie:

- Lehenik eta behin, lehen ere adierazi dugunez, **6 programa amaitu dira 2004ko abenduaren 31rako**: Etxebarriko programa, 2002an amaitu zena,

Bilbao Otxarkoaga eta Ermuko programak, 2003ko ekitaldian zehar amaitu zirenak eta **Bilbao Zaharra, Mungia eta Güeñes, 2004an amaitu direnak.**

Burututako azkeneko programa horien arduradunek bertako parte-hartzeari buruz esandakoaren arabera, ekimenak erabateko arrakasta izan du. Bilbao Zaharraren kasuan proiektu historiko bat burutzea ahalbidetu du, alegia, Mesedeetako kaiaren urbanizazioa eta bizitegi eta merkataritzarako zenbait eraikin birgaitzea, auzo horri leheneratzeko eta birgaitzeko norabideari jarraitzeko aukera emanez, Bilboko Udalak ia hamarkada baitarama horrekin konprometituta. Mungiaren kasuan, berriz, hirialdeak leheneratzeko programa osoa gauzatzea ahalbidetu da, batez ere hirigunean bertan (nahiz eta landaguneak integratzeko neurriak ere hartu diren). Horretarako, udalerriko erdialdeko eremuak oinezkoentzat bihurtzeko plana garatu da. Beste hainbat jardueraren artean, merkatuaren eraikina berreskuratu da. Amaitzeko, Güeñesko Udalekoek adierazi dutenez *"...Udalak ez du orain artean maila honetako esku-hartzerik egin.."*, eta honi esker egin ahal izan diote aurre Elubarri auzoaren urbanizazioari. Horrezaz gain, Izartu programaren konpromiso serioa eta sendotasuna azpimarratu dituzte, laguntzak emateko beste programa batzuek ez dituztenak, eta berorren eragin biderkatzaileak azpimarratu dituzte, goraldiaren irudipena eragin baitu narriatutako zona hauetako biztanleengan eta izandako aurrerapena dela eta gogo berotutako ekonomia-jardueran.

- **Bigarrenik, zenbaketa orokorra egiten hasita, ikus dezakegu Izartuk onartutako jardueren arteko 126 amaitu direla 2001- 2004 aldian.** Horrek esan nahi du Izartu programaren baitan finantzatutako proiektuen %40 amaitu direla, laguntza teknikoaren inguruko jarduerak alde batera utzita betiere. Bestalde, jarduera horiek inbertsio handia eskatzen duten horietakoak dira, izan ere, 2001-2004 aldian egindako gastuari erreparatzen badiogu, guztizko inbertsioaren %60 osatzen dute. Egindako inbertsioan duten pisua oraindik amaitzeko diren jarduerena baino handiagoa da.

Horri jarraiki, ikus dezakegu amaitutako jardueren %48 (106 jarduera) 2. ARDATZEKOAK (*tokiko oinarritzko azpiegiturak*) direla, eta batez ere 2.5 Antolatze eta birgaitze azpiegiturak neurriaren baitakoak.

2. taula: IZARTU programetan amaitutako jardueren analisia, esku hartzeko esparruen arabera. 2004.urtea.

ARDATZAK ETA NEURRIAK	JARDUERAK GUZTIRA	AMAITUTAKO JARDUERAK	%
1. ARDATZA. PRODUKZIO-INGURUNEA ETA ENPLEGUA	31	9	%29
1.1.Jarduera laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea	9	1	%11
1.2.Produkzio-azpiegitura sortzea eta garatzea	4	1	%25
1.3. Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea	8	2	%25
1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea	10	5	%50
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	245	106	%43
2.1. Garraio-azpiegiturak	21	5	%24
2.2. Telekomunikazio-azpiegiturak eta informazioaren gizartea	5	2	%40
2.3.Energia-azpiegiturak	1	1	%100
2.4. Ingurumen-azpiegitura	22	10	%45
2.5. Antolatze eta birgaitze azpiegiturak	147	72	%49
2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegitura	11	2	%18
2.7. Aisia- eta kultura-azpiegitura	36	13	%36
2.8. Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegitura	2	1	%50
3. ARDATZA. GIZA BALIABIDEAK ETA GIZARTE- INTEGRAZIOA	30	12	%40
3.1.Lan-merkatuko politikak	8	2	%25
3.2.Gizarte-integrazioa	9	6	%66
3.3. Aukera-berdintasuna	7	2	%28
3.4. Hezkuntza eta prestakuntza	6	2	%33
4. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK SORTZEA ETA GARATZEA	7	1	%14
4.1. Tokiko oinarritzko zerbitzuak	6	1	%16
4.2. Hiritarren segurtasuna	-	-	-
4.3. Hiri-hezkuntza eta -prestakuntza	1	0	%0


Bestalde, beren programak amaitu dituztenez landa, honakoak dira jarduera gehien burutu dituzten udalerrriak: Irun, Deba, Eibar, Mendaro, Legazpi, Urretxu, Zegama, Tolosa, Berriz, Balmaseda eta Leioa.

3.2.4. PROGRAMAK AURRERA EGITEN LAGUNTZEKO NEURRIAK

Aurreko ekitaldian (2003) egin zen inbertsio gehien laguntza teknikoaren inguruko jardueretan eta programari laguntzeko neurrietan, ziurrenik aldi horretan izan zuelako Izartu programak aurrerapen esanguratsua, aurreko bi urteekin alderatuta. Izan ere, urte horretan jarri ziren abian hasteko zeuden programa eta jarduera gehienak. Horrezaz gain, programetako askok bitarteko ebaluazioa egiteko prozesuari ekin zioten, eta horietako askotan kontu-sail honetan hartu zen barne horretarako aurrekontua.

Urte horretatik aurrera, **programaren ekuatorearekin bat datorren urtetik aurrera**, laguntzeko neurriak batez besteko inbertsioaren inguruan kokatu dira berriz, batetik, jardueretako asko dagoeneko amaitu direlako, eta bestetik, laguntzarako jardueretarako eta programari laguntzeko inbertsioaren %80 inguru gauzatu delako.

12. grafikoa: 2001-2004 aldiko Izartu programaren laguntza teknikorako gastua




2004an eutsi egin zaio laguntza teknikorako zerbitzuak izan dituzten programen kopuruari (29 programa), alabaina, Izartu programaren hasierarekin konparatzen badugu, onuradun gehiago dituztela ikusi ahal izango dugu. Hori udalek laguntza honi emandako garrantziaren erakusle da.

Laguntzaren baitan garatutako lanen artean, Izartu programa bere osotasunean kudeatzearekin zerikusia duten zereginak dira programa gehienek kontratatzen dituztenak. Honakoak, hain zuzen ere: *jarduerak zedarritzen eta zehazten laguntzea; kudeaketarako eta programaren araudia betetzeko aholkuak ematea; programa, esku hartzen duten udal-esparruak eta bestelako erakundeak eta/edo onuradunak koordinatzeko lanerako tresnak eskaintzea; eta Izarturen kudeaketarekin zerikusia duten*

agiri guztiak prestatzea (gauzatutakoaren inguruko urteko txostenak, gastuen egiaztatzea, luzapenak, aldaketak eta abar eskatzeko orriak...).

Garrantziari jarraiki, Izartu programaren baitako berariazko jardueren jarraipena egiten laguntzeko jarduerak eta obra-zuzendaritzako jarduerak (ingeniaritza, arkitektura) ditugu bigarren eta hirugarren, baita berariazko esparruetako azterlan teknikoak eta aholkularitzaren kontratazioa ere (aurreproiektuak, proiektu teknikoak, eraginen azterlanak, segurtasun eta osasuneko planak, eta abar).

13. grafikoa: 2004ko laguntza teknikoaren baitako jardueren nagusiak




Bestalde, jarduerak nabarmen egin dutenez aurrera, **Izartu programaren bidez finantzatutako jardueren publizitatea egiteko eta horiek hedatzeko jarduerak ere ugaritu dira programei laguntzeko neurrien artean.**

Horri jarraiki, ia programa onuradun guztiek uztartu dituzte Izartu programaren baitako jardueren berri emateko eta horien publizitatea egiteko hainbat bide eta neurri. Aurten, gainera, garrantzitsua izan da arduradunek programarekin zerikusia duten publizitateko neurrietarako finkatutako legezko irizpideak betetzearen inguruko aipamena egitea, 318/1999 Dekretua, abuztuaren 31koa, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duena, aintzat hartuta.

Honakoak dira programen, Izartu ekimenaren eta laguntzen edukari buruzko informazioa emateko gehien erabili diren bide eta tresnak: esku hartzeko zonetan kokatutako publizitateko kartelak, panelak edo hesiak, pixkanaka informazio-iragarki bihurtzen ari direnak, publizitate-kanpainak, eskualdeko eta/edo erkidegoko prentsako artikulak eta iragarkiak, eta udal-bideak edo tokiko komunikabideak, udal-informazioa emateko erabili ohi direnak (web-orria, buletinak edo udal-aldizkariak, postontzietara banatzea,...).

Horrezaz gain, joan zen urtean nabarmentzekoa izan zen udalek informazioa emateko egindako lana, batzuetan Eusko Jaurlaritzan programaren arduradun direnekin lankidetzan. Informazio hori jardueren "produktuen" bidez eman da: prestakuntza-diplomak, ordenantzak, informazioa emateko triptikoak eta turismo-liburuxkak, eta "azken" onuradunei bideratutako diru-laguntzak eskatzeko tramiteak (birgaitzeko laguntzak, enpresa, ekintzaile edo langabeentzako laguntzak...). Amaitzeko, zehatzagoak eta pertsonalagoak diren beste publizitate-bide batzuk ere azpimarra ditzakegu, esate baterako, informazioa emateko bilerak eta abian diren proiektuen eragina izango duten edo horien onuradun izango diren pertsonen jarduerak argitzeko antolatutako hitzaldiak.

14. grafikoa: 2004an Izartu programen baitan komunikatzeko, informazioa emateko eta hedatzeko erabilitako tresnak.



4. IZARTU II PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA

Kapitulu honetan 2004-2008 aldirako Izartu programak, ekimenaren bigarren deialdiari dagozkionak, nola gauzatu diren eta horiek abian jarri ondorengo lehenengo urtean izan duten aurrerapena aztertuko ditugu. Aurreko kapituluan bezala, aurrerapen hori sailkapen funtzionalari -ardatzei eta neurriei- eta lurraldearen arabera - eskualdeei eta udalerriei- jarraiki aztertuko dugu, Izartu II ekimenaren onuradun diren 68 programetan.

2004-2008 aldirako Izartu programen esku hartzeko esparruak ez dira lehenengo deialdikoek berdinak. Lau ARDATZEN (produkzio-ingurunea, tokiko oinarritzko azpiegiturak, gizarte-integrazioa eta tokiko zerbitzuak eta laguntza teknikoa) eta 20 neurriren inguruan bildu ditugu.

1. ARDATZA. PRODUKZIO-INGURUNEA

- 1.1. Jarduera laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea
- 1.2. Produkzio-azpiegitura sortzea eta garatzea
- 1.3. Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea
- 1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea

2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK

- 2.1. Garraio-azpiegiturak
- 2.2. Telekomunikazio-azpiegiturak eta informazioaren gizartea
- 2.3. Energia-azpiegitura
- 2.4. Ingurumen-azpiegitura
- 2.5. Antolatze eta birgaitze azpiegiturak
- 2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegiturak
- 2.7. Aisia- eta kultura-azpiegitura
- 2.8. Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegitura

3. ARDATZA. GIZARTE-INTEGRAZIOA ETA TOKIKO ZERBITZUAK

- 3.1. Gizarte-integrazioa
- 3.2. Aukera-berdintasuna
- 3.3. Hiri-hezkuntza eta -prestakuntza
- 3.4. Hiritarren segurtasuna
- 3.5. Gizarte- eta laguntza-zerbitzuak
- 3.6. Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
- 3.7. Tokiko oinarritzko beste zerbitzu batzuk

4. ARDATZA. LAGUNTZA TEKNIKOA

4.1. Laguntza teknikoa

Sailkapen horren baitan 336 jarduera biltzen dira, nahiz eta 3. ARDATZAREN (Gizarte-integrazioa eta tokiko zerbitzuak) barruko hiru neurriren inguruan ez den jarduera bakar bat ere aurkeztu: 3.3 Hiri-hezkuntza eta -prestakuntza, 3.4 Hiritarren segurtasuna eta 3.5 Gizarte- eta laguntza-zerbitzuak. Aurreko deialdian bezalaxe, jarduera gehienak eta inbertsiorik handiena 2. ARDATZAREN (Tokiko oinarritzko azpiegiturak) ingurukoa izan dira. Alabaina, kontzentrazioa are handiagoa da 2004-2008 aldirako Izartu programetan, ARDATZ honetakoak baitira inbertsioaren %96 eta jardueren %78. 1. ARDATZAK (Produktzio-ingurunea) jardueren %4 biltzen du eta 3. ARDATZAK (Gizarte-integrazioa eta tokiko zerbitzuak) jarduera guztien %1.

3. taula: 2004-2008 aldirako IZARTU programetan aurkeztutako jardueren analisia, esku hartzeko esparruen arabera. 2004. urtea.

ARDATZAK ETA NEURRIAK	JARDUERAK 2004. URTEA	
	Kop.	%
1. ARDATZA. PRODUKTZIO-INGURUNEA	16	%4
1.1. Jarduera laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea	8	%2
1.2. Produktzio-azpiegitura sortzea eta garatzea	3	%1
1.3. Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea	1	%0
1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea	4	%1
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	261	%78
2.1. Garraio-azpiegiturak	23	%7
2.2. Telekomunikazio-azpiegiturak eta informazioaren gizartea	4	%1
2.3. Energia-azpiegiturak	6	%2
2.4. Ingurumen-azpiegitura	47	%14
2.5. Antolatze eta birgaitze azpiegiturak	162	%48
2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegitura	5	%1
2.7. Aisia- eta kultura-azpiegitura	12	%4
2.8. Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegitura	2	%1
3. ARDATZA. GIZARTE-INTEGRAZIOA ETA TOKIKO ZERBITZUAK	3	%8
3.1. Gizarte-integrazioa	1	%0,3
3.2. Aukera-berdintasuna	1	%0,3
3.3. Hiri-hezkuntza eta -prestakuntza	-	-
3.4. Hiritarren segurtasuna	-	-
3.5. Gizarte- eta laguntza-zerbitzuak	-	-
3.6. Gizarte- eta kultura-zerbitzuak	-	-
3.7. Tokiko oinarritzko beste zerbitzu batzuk	1	%0,3
4. ARDATZA. BESTE HAINBAT	56	%17


4.1. Laguntza teknikoa

56

%17

Lurraldearen arabera sailkapenari dagokionez, udalerri onuradunak hiru lurralde historikoetakoak ditugu: 2 udalerri Araban, 37 Bizkaian eta 29 Gipuzkoan. Honakoak izan dira eskualde onuradunak (aurreko deialdian ez ziren lau eskualde agertzen dira oraingoan): Araba -Arabako Lautada-, Bizkaia -Nerbioi Garaia, Arratia-Nerbioi, Bilbao, Durangaldea, Enkarterriak, Gernika-Bermeo, Eskuinaldea, Ezkerraldea, Markina-Ondarroa, Plentzia-Mungia eta Txorierri- eta Gipuzkoa -Debagoiena, Bidasoa Behea, Debarrena, Donostia, mendebaldeko ingurabidea, ekialdeko ingurabidea, Goierri, Tolosa eta Urola Kosta. Grafikoan adierazi ditugu programan parte hartzen ari diren udalerriak:

15. grafikoa: 2004-2008 aldirako IZARTU programen zerrenda udalerrien eta eskualdeen arabera




4.1. 2004an GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEA ETA DESBIDAZIOAK

4.1.1. 2004an GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEAREN FINANTZA-ALDERDIAK

2004an 2004-2008 aldirako Izartu programaren 68 udalerri onuradunek egindako gastua 8.218.368 €koa izan da. Lehenengo urte honetan udalek egindako inbertsio-ahalegina programaren guztizko inbertsioaren %5ekoa izan da.


Hori kontuan izanik, nabarmen gaingitu da aurreikuspenen arabera 2004an egin beharreko gastua (1.333.333 €). Izartu II programaren lehen bi urteetarako (2004 eta 2005erako) gastuaren programazioari erreparatzeko badiogu (30.063.163 €) eta kontuan hartzen badugu lehen urterako programatutako gastua aurrerakinari zegokiona bakarrik zela, ikusi ahal izango dugu 2004rako egindakoarekin soilik %27 gauzatu dela.

16. grafikoa: 2004an egindako gastua, urte horretarako programazioaren arabera.



Izartu II programaren onuradunak aurreikuspenetara zenbat egokitu diren kontuan hartu eta hori Izartu I programek lehen urtean izandako ibilbidearekin konparatzen badugu, ikus dezakegu orduan gauzatu beharreko inbertsioaren inguruko aurreikuspenen erdira iritsi zirela gutxi gorabehera. Haatik, urte horretako gastuaren programazioa handiagoa izan zen eta egiaz gehiago gauzatu zen.

17. grafikoa: Izartu I eta Izartu II programek lehen urtean egindako gastuen arteko konparazioa



Bestalde, 2004-2008 aldirako Izartu programei dagokienez, **inbertitzeko erritmoa ez da berdina izan esku hartzeko esparru guztietan, baina ia neurrien bi herenetan gaititu da programazioa, edo erabat lortu da.**

Hortaz, programazioa nabarmen gaititu da honako neurrietan: *2.7. Aisia- eta kultura-azpiegitura, 2.4. Ingurumen-azpiegitura, 1.1.Jarduera laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea, 2.1. Garraio-azpiegiturak, 2.5. Antolatze eta birgaitzeko azpiegiturak, 2.3.Energia-azpiegiturak eta 3.7. Tokiko oinarritzko beste zerbitzu batzuk.* Bestetik, honako neurri hauek %100 gauzatu dituzte 2004ko ekitaldirako aurreikuspenak: *2.6 Gizarte eta osasun-azpiegitura eta 2.2 Telekomunikazio-azpiegiturak eta informazioaren gizartea.*

Programazioa alde batera utzita, ez da inolako gasturik izan ondorengo neurri hauen inguruan: *1.2 Produkzio-azpiegitura sortzea eta garatzea, 1.3 Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea, 1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea, 2.8 Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegitura, 3.1 Gizarte-integrazioa eta 3.2 Aukera-berdintasuna.*


18. grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2004-2008 aldirako Izartu programek 2004an egindako inbertsioa.



Lurraldearen ikuspegitik **begiratuta**, hiru lurralde historikoetan izan da inbertsioa 2004rako programatutako gastua baino handiagoa. Bizkaian izan da handiena superabita, lehenengo urterako aurreikuspenen arabera. Ondoren dira Gipuzkoa eta Araba. Bigarren Izartu programaren onuradun izan diren eskualdeen %80k (21 eskualdetatik 16k) programatutakoa baino ahalegin handiagoa egin dute inbertitzeko. Honakoak dira beren aurreikuspenetara egokitu ez diren eskualdeak: *Gernika-Bermeo, Eskuinaldea, Bidasoa Behea, Donostia eta ekialdeko ingurabidea*. Aipatzekoa da eskualde horietako bi -*Gernika-Bermeo eta Donostia*- atzeratuta ibili zirela lehen deialdiko Izartu programak abian jartzeko garaian (Izartu 2001-2005).

Aitzitik, honakoak izan dira inbertitzeko ahalegin handiena egin duten eskualdeak: *Arratia-Nerbioi*, *mendebaldeko ingurabidea*, *Bilbao*, *Urola Kosta*, *Durangaldea*, *Debagoiena* eta *Enkarterriak*.

19. grafikoa: Eskualdeak. 2004-2008 aldirako Izartu progamek 2004an egindako inbertsioa.




4.1.2. PROGRAMAZIOAREN ARABERAKO DESBIDAZIOAK

Izartu I programako onuradunek lehenengo urtean izandako aurrerapenaren zenbatekoei erreparatzen badiegu, datuek tamaina txikiko ekipok eta eremuak zituzten erakundeetan gisa honetako jarduerak abian jartzeko behar zen denbora islatzen digute (arauen aldaketa puntualak, eskaintza publikoak, azterlan teknikoak, langileen kontratazioa, beste administrazio batzuen baimenak eta abar, eragozpen zirenak edo tokiko arduradunek aurkeztutako programetan aintzat hartu ez zirenak). Hortaz, lehenengo urtea prestatzeko, plangintza egiteko eta helburu errealistagoetara eta programazio bideragarriagoetara bideratzeko urtea izaten zen gisa honetako jardueretan.

Bestalde, gastuaren aurreikuspenak txikiagoak izan direnez (1,3 milioi € Izartu IIIn eta 30 milioi € aurreikusita Izartu I programan) eta udalen %40 2001-2005 aldirako Izartu programen onuradun ere izan direnez, urteko aurreikuspenak gainditu egin dira udalerrri eta jarduera askotan, baita 2004-2005 aldia aintzat hartuta ere.


Hortaz, Izartu I programan baino desbidazio gutxiago izan dira gastua ez gauzatzeari dagokionez. Aitzitik, egokitze- eta gainditze-maila handiagoak izan dira bigarren deialdiaren lehen urte honetan. Diruz lagundutako 280 jardueren artean (laguntza teknikoaren inguruko jarduerak alde batera utzita), %61ek ez dute inolako desbidaziorik izan, lehen urte honetarako ez zutelako inbertsiorik programatu nahiz programatutako gastua guztiz gauzatu dutelako. Desbidazioei dagokienez, %63k aurreikusitako programazioan zehaztutakoa baino gastu handiagoa egitearekin dute zerikusia eta desbidazioen %25 bakarrik zor zaizkio programatutako inbertsioa batere ez gauzatzeari.

20. grafikoa: Jarduerak. 2004-2008 aldirako Izartu programen programazioaren araberrako desbidazioak. 2004. urtea.




programatutako inbertsioa baino handiagoa ere badela. Hori ondorengo grafikoan ikus dezakegu, *Arratia-Nerbioi* eta *Bilbao* eskualdeei dagokien zatian, hain zuzen ere.

21. grafikoa: Eskualdeak. 2004-2008 aldirako Izartu programen programazioaren araberako desbidazioak. 2004-2005.



Udalerriei begira, berriz, aurreikuspenen arabera superabit hori Izartu II programaren onuradun izan diren udalerrien erdietan baino gehiagotan izan da (%53). Horri beste %5 gehitu beharko genioke, programatutakoa bete dutenak edo horretatik oso hurbil daudenak kontuan hartuta. Udalen %16 ez dira hasi eta %24k lehenengo urterako aurreikusicatkoa baino gutxiago inbertitu dute.

22. grafikoa: Udalerriak. 2004-2008 aldirako Izartu programen programazioaren arabera desbidazioak. 2004. urtea.



Programatutako gastua bereziki gauzatu dutenen artean ditugu Igorre, Hernani, Bilbao, Orio, Ibarra, Derio, Andoain eta Lekeitio. Tokiko arduradunen aburuz, honakoak izan dira aurrerapen horren arrazoi nagusi: hobekuntza eta jardueretako batzuei (bereziki hirigintza-hobekuntzei) lehenbailehen heltzeko premia eta/edo esku-hartzeak alditan banatzeko epeak ez izatea berdinak udal-plangintzan edo udalaz gaindikoa (egin beharreko jardueretan eskumena duten bestelako erakunde publikoetan).

- *Hernani, Bilbao eta Derioko arduradunek adierazi dutenez, ezinbestekoa izan da proiektuei lehenbailehen ekitea, jardueraren onuradun diren herritarren ongizatearekin dutelako zerikusia. Hernanin, esate baterako, udal-zerbitzuen sareak berriz urbanizatzeko eta berritzeko jarduerak aurreratu dira, "...beharrezkoa zelako bertakoen bizi-kalitatea areagotzea ahalbidetzen duten auzoetako hobekuntzei lehenbailehen ekitea". Bilbaon, berriz, ur-sareak hobetzeko eta berritzeko lanei "lehenbailehen ekin zaie, Bilbao Zaharreko bizilagunek behin eta berriz egin dutelako horretarako eskaria. Edateko uraz hornitzea oinarritzeko premia da eta gaur egungo sareak benetan zeuden oso narriatuta". Derion, aldiz, Larrabbarri baserria berreraiki da, bertan biltzeko egun udalerrian barreiatuta dauden gizarte, kultura eta aisiarekin zerikusia duten hainbat zerbitzu.*
- *Beste kasu batzuetan, Igozterren kasuan, esate baterako, gehiegi gauzatzea Aldunditik jasotako diru-laguntzaren baldintzari eta Udal-sareak partzuergoarekin*


(Bilbao-Bizkaiko ur-partzuergoarekin) denbora-tarte jakin batean bigarren mailako sarea berritzeko finkatutako plangintzari zor zaie. Bestalde, zenbait jarduera (hala nola, Igorreko kultur etxearen proiektua, San Inazio auzoaren urbanizazioa eta Ibarako Emeterio Arrese parkea) udalak berak ezarritako aurreikuspen eta programazioak direla eta egin dira programatutakoa baino lehen.

Aitzitik, atzeratuen doazen programei erreparatzen badiegu, ondorengo 13 udaletan ez da inolako gasturik egin: Gasteiz, Basauri, Durango, Ermua, Trapagaran, Irun, Donostia, Lasarte, Lezo, Oiartzun, Zaldibia, Tolosa eta Villabona. Atzerapenaren inguruan gehien aipatzen dituzten argudioak udalaz kanpokoak izaten dira (azpikontrataturako enpresek obren hasiera atzeratzea...), edo udalerrian bertan dauden bestelako esku-hartzeekiko mendetasunaren ingurukoak. Bestalde, kasu batzuetan gasturik ez egiteak ez du ezinbestean esan nahi programari ez zaionik ekin.

- *Gasteiz, Ermua, Tolosa eta Villabonako ordezkariak udalaren jarduera-esparrutik kanpoko arrazoiak argudiatu dituzte, esate baterako, enpresa esleipendunak obrari oraindik ez ekitea, enpresa kontratatatzeko garaian beste erakunde batzuek esku hartzea, beste erakunde batzuen inguruko gaiak ez ebatzea... Hori dela eta, aurrekontua 2005erako uztea proposatu da. Horrezaz gain, Gasteizko Udalak obren jarraipenaz arduratuko den batzordea sortzea erabaki du.*
- *Irun eta Lezo (biak Izartu I programaren onuradun izan ziren) lehenengo deialdian hasitako obrak amaitu zain daude, horiek bigarren Izartu programan barne hartutako proiektuen hasieran eragiten dutelako.*
- *Lasarteren kasuan, aldiz, programatutako gastua berandutzearen inguruko baieztapena erlatibizatu egin behar genuke, dagoeneko hasi baitira programarekin, baina hori barnean, udal-teknikarien bidez, egin dutenez, ez dute izan Izartu programari egotz dakioken gasturik.*

**4.2. PROGRAMAREN AURRERAPENA BALIOESTEA, IKUSPEGI FUNTZIONALETIK
ETA LURRALDEAREN IKUSPEGITIK****4.2.1. PROGRAMAREN AURRERAPENA INBERTSIOAREN ARABERA**

2004-2008 aldirako IZARTU programek lehenengo urtean egindako gastua programak aldi osorako aurreikusitako guztizko inbertsioaren %5 izan da. Lehen Izartu programarekin konparatuta, aurrerapena antzekoa izan da, programaren lehen deialdiko onuradun izan zirenek guztizko inbertsioaren %6 gauzatu baitzuten beren ibilbidearen lehen urtean.

23. grafikoa: Izartu I eta Izartu II programek lehenengo urtean izandako aurrerapenen arteko konparazioa, guztizko inbertsioaren arabera.


Jarduerak abian jartzearekin batera hasten diren eta laguntza teknikoarekin zerikusia duten jarduerak alde batera utzita, **eta 2004. urtean egindako jarduerari begira, honakoak dira neurririk aurreratuenak, egin beharreko inbertsioaren guztizkoa kontuan hartuta:**

- *2.7 Aisia- eta kultura-azpiegiturak:* 2004ko gastua 2.549.551 €koa izan da, hau da, guztizko inbertsioaren %17.
- *2.3 Energia-azpiegiturak:* 2004an neurri honen inguruan egin beharreko guztizko inbertsioaren %7 gauzatu dute, 151.358 €ko gastuarekin.
- *2.4 Ingurumen-azpiegiturak:* 2004. urtean guztizko inbertsioaren %5 egin dute, 1.176.580 €ko gastuarekin.

- *2.2 Telekomunikazio-azpiegiturak eta informazioaren gizartea:* 2004an 24.440 €ko gastua eginda, guztizko inbertsioaren %5 gauzatu dute.
- *2.1 Garraio-azpiegiturak:* 2004an neurri honen inguruan egin beharreko guztizko inbertsioaren %4 egin dute, 601.267 €ko gastuarekin.

Aitzitik, *1.2 Produkzio-azpiegitura sortzea eta garatzea, 1.3 Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea eta 1.4 Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea babestea* neurriak, 1. ARDATZAREN baitakoak, ez dira iritsi aurreikusitako guztizko inbertsioaren %1era. Gauza bera gertatzen da honako neurrien kasuan ere: *2.8 Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegitura, 3.1 Gizarte-integrazioa eta 3.2 Aukera-berdintasuna*.


24. grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2004-2008 aldirako Izartu programek egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera.



Lurraldearen ikuspegitik **begiratuta**, lurraldeetako bakoitzerako guztizko inbertsioaren arabera izandako aurrerapena konparatzen badugu, **Bizkaia da aurreratuen** **doan** **lurraldea**. Dagoeneko 5.301.295 €ko gastua egin du, alegia, aldi osorako aurreikusitako guztizko inbertsioaren %6 (87.929.275 €koa da hori). Gipuzkoan 79.566.535 €ko inbertsioa du guztira aldi osorako eta 2004an berorren %4 gauzatu du, 2.870.360 €ko gastua egin baitu. Amaitzeko, Arabak 5.438.098 €ko guztizko inbertsioa izaki, berorren %1era iritsi da 2004an, 46.713 €ko gastua egin du eta.

Eskualdeka begiratuta, Arratia-Nerbioi, Bilbao eta Enkarterriek guztira aurreikusitako inbertsioaren %20 gainditu dute. Ezkerraldea %12, mendebaldeko ingurabideak %10, Txoriherri eta Urola Kosta eskualdeek %8na eta Markina-Ondarroa eskualdeak %7. Eskuinaldea, Bidasoa Behea, Donostia eta ekialdeko ingurabidea dira gutxien aurreratu duten eskualdeak.

25. grafikoa: Eskualdeak. 2004-2008 aldirako Izartu programek egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera.



4.2.2. TOKIKO INBERTSIO-AHALEGINA ETA JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK

2004-2008 aldi honetan udal onuradunek Izartu programarekin batera finantzatzen duten zatiari begira, **batez beste %37koa izan da tokiko inbertsio-ahaleginari.**

Horri dagokionez, gogoratzekoa da onuradun guztiek ez dutela ahalegin berdina egin, hori baterako finantziazioaren tasaren araberkoa baita. Izan ere, narriadura sozioekonomikoa definitzeko inrizpideetan oinarrituta, diruz lagun daitezkeen inbertsioaren %30, %50 eta %75eko laguntza ezartzen da. 47 izan dira inbertsioaren %75eko laguntza jaso duten programak. 17 udalerrik jaso dute %50eko laguntza eta 4k, berriz, %30ekoa. Bestalde, Izartu programaren bigarren deialdi honek BEZ hartzen du aintzat. Hori dela eta, Izartu I programaren onuradun izan zirenen tokiko inbertsio-ahaleginarekin konparatuz gero (hori %30ekoa izan zen batez beste), ahalegina antzekoa izan da, lehenengo deialdikoek zerga hori hartu behar izan zutelako beren gain.

Beraz, **Izartu II** programek 2004an gauzatutako 8 milioi € horietatik 3 milioi euro inguru tokiko inbertsio-ahaleginari zor zaizkio, Izartuk emandako diru-laguntza kontuan izanik.

Bestalde, oraindik ere programa bateragarri da beste diru-laguntza eta laguntza batzuekin, gainerako administrazio eta erakundeetatik etor daitezkeenekin. **Hori laguntza handia izaten da kasu batzuetan udalak batera finantzatu behar duen zatiari aurre egiteko.** Haatik, ez dira bateragarri izango Eusko Jaurlaritzako beste sailetatik edo berariazko beste programa batzuetatik jasotako diru-laguntzekin.

Bide horretatik, lehen urte honetan **guztira 1.345.733,97 euro jaso dira Izartu programan barne hartutako jardueretarako bestelako laguntza edo diru-laguntza gisa.** Zenbateko hori guztira egindako gastuaren %16,37 bada ere, tokiko inbertsioari begira, ordaindutakoaren %45 izan da.

Zenbateko hori handia den arren, **Izarturen baitako 9 programa bakarrik dira laguntza horietakoren bat jaso dutenak**. Ekimenaren baitan finantzatutako 280 jardueren arteko **13k bakarrik jaso dituzte laguntza horiek**. Horrezaz gain, jarduera horien guztizko gastuari begira, beste laguntza horiei dagokien inbertsioaren ehunekoa %21,12koa baino ez da izan, batez beste.


Proiektuen tipologiari erreparatzen badiogu, 2.5. Antolatze eta birgaitze azpiegiturak neurriaren baitakoak dira diru-laguntza gehien jaso dituzten jarduerak. Horien ondotik ditugu *2.1 Garraio-azpiegiturak* eta *2.3 Energia-azpiegiturak* deituriko neurriak.

Lurraldeen arabera begiratuta, diru-laguntza horietako %77 Bizkaiko lurralde historikoan lortu dira. Gainerako laguntzak, berriz, Gipuzkoan. **Bi kasuetan foru-aldundietatik iritsi da bitartekoen zatirik handiena.**

4.2.3. PROGRAMAREN AURRERAPENA IKUSPEGI INTEGRALETIK

Programa bere osotasunean hartuta, **tokiko arduradunen ustez ona izan da jardueren bidea**. Deialdi honetan onuradun izan diren 45 Izartu programen arduradunen ustez, ekimena positiboa izan da, batez ere biztanle onuradunen artean sortu dituen iguripen eta ilusioak direla eta, jardueretako asko hasi besterik ez direlako egin eta horiek izandako aurrerapena abian jartzean baino ez datzalako. Udalerrien %26k ez dute iritzirik eman, oraindik ez dietelako aurreikusitako esku-hartzeei ekin. Amaitzeko, %7k adierazi dute gauzatutakoa ez dela itxarotako mailara iritsi. Hori batez ere jardueri aurtan ekiteko asmoa izan baina hori lortu ez dutenek esan dute.

26. grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu programak daraman bidearen inguruko asetatsunaren balorazioa



2004ko ekitaldian tokiko arduradunek adierazitako emaitza nagusia programa bera abian jarri izana da: *"...aurrerapen handiak egin dira proiektua abian jartzeko prozesuan... baina programa hasi besterik ez da egin eta orain arte egindako bidea ez da esanguratsua, berorren inguruko balantze xehea egin ahal izateko..."*. Horrezaz gain, azpimarratu dute herritarren asetatsun-maila altua hasi direla hautematen jarduera hauen inguruan, baita tokiko korporazioaren motibazioa eta konpromisoa ere, jarduerak egoki gauzatzeko: *"...benetan uste dugu aurrera egiteko eragile izango dela eta gure udalarentzat pizgarri izango dela ilusioz betetzeko programaren helburuak eta gure herritarren iguripenak..."*, *"...tamaina honetako proiektua erronka handia da udalarentzat, baita aukera paregabea ere, egiteke dauden eta oso beharrezkoak diren lanei heltzeko..."*.

Balorazio baikor hori 2004-2008 aldirako Izartu programen ibilbideko lehen urtean lortutako emaitzei zor zaie. 77 jarduerari ekin zaie 2004an, 55 udalerritan, hain zuzen

ere. Horrek esan nahi du bigarren deialdi honetan onuradun izan diren programen %80 hasi direla dagoeneko jardueraren bat edo batzuk egiten.

Horrezaz gain, hasierako fasean gaudenez udalerriek beren programak amaitzeko goiz den arren, zenbaketa orokorra eginda ikus liteke Izartuk onartutako 280 jardueren artetik 7 amaitu direla 2004an, hau da, jarduera guztien %2,5, milioi bat € inguruko inbertsioarekin.

Honakoak dira amaitutako jarduerak burutu dituzten udalerriak: Iurreta, Elorrio, Artzentales, Bilbao, Bergara, Turtzioz eta Igorre. Amaitutako jarduerak 2. ARDATZAREN (Tokiko oinarritzko azpiegiturak) baitakoak dira, ondorengo neurrien ingurukoak: 2.5 Antolatze eta birgaitze azpiegiturak, 2.3 Energia-azpiegitura eta 2.4 Ingurumen-azpiegitura. Nagusiki esku hartzeko esparruetan saneamendua eta argiteria publikoa hobetzeko jarduerak dira, baina azpimarratzekoak dira, halaber, bestelako hirigintza-hobekuntzak (kaleak urbanizatzea, espazio publiko hornitzea) eta gizarte-hobekuntzak ere (kultur ekipamenduz hornitzea).

4. taula: 2004-2008 aldirako Izartu programetan amaitutako jardueren analisia, esku hartzeko esparruen arabera. 2004.urtea.


ARDATZAK ETA NEURRIAK	JARDUERAK GUZTIRA	HASITAKO JARDUERAK	%	AMAITUTAKO JARDUERAK
1. ARDATZA. PRODUKZIO-INGURUNEA	16	2	%13	0
1.1.Jarduera laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea	8	2	%25	0
1.2.Produkzio-azpiegitura sortzea eta garatzea	3	0	%0	0
1.3. Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea	1	0	%0	0
1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea	4	0	%0	0
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	261	74	%28	7
2.1. Garraio-azpiegiturak	23	6	%26	0
2.2. Telekomunikazio-azpiegiturak eta informazioaren gizartea	4	2	%50	0
2.3.Energia-azpiegiturak	6	4	%67	2
2.4. Ingurumen-azpiegitura	47	13	%28	1
2.5. Antolatze eta birgaitze azpiegiturak	162	43	%27	4
2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegitura	5	1	%20	0
2.7. Aisia- eta kultura-azpiegitura	12	5	%42	0
2.8. Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegitura	2	0	%0	0
3. ARDATZA. GIZARTE-INTEGRAZIOA ETA TOKIKO ZERBITZUAK	3	1	%33	0
3.1. Gizarte-integrazioa	1	0	%0	0
3.2. Aukera-berdintasuna	1	0	%0	0
3.3. Hiri-hezkuntza eta -prestakuntza	-	-	-	-
3.4. Hiritarren segurtasuna	-	-	-	-
3.5. Gizarte- eta laguntza-zerbitzuak	-	-	-	-
3.6. Gizarte- eta kultura-zerbitzuak	-	-	-	-
3.7. Tokiko oinarritzko beste zerbitzu batzuk	1	1	%100	0

4.2.4. PROGRAMAK AURRERA EGITEN LAGUNTZEKO NEURRIAK

Izartu II programako onuradunek laguntza teknikoaren inguruko jarduerak gehiago egin dituzte eta neurri horrek pisu espezifiko handiagoa du guztizko inbertsioaren baitan, Izartu I programarekin alderatuz gero.

Izan ere, 56 udalerrik (onuradunen %80k baino gehiagok) kontratatu dituzte kanpoko laguntza jasotzeko zereginak, 2,3 milioi euro inguruko balioa izan dutenak (2004-2008 aldirako Izartu programak bere osotasunean izango duen guztizko inbertsioaren %1,4). Izartu I programen lehen urtearekin alderatzen badugu, 19 programek bakarrik (onuradunen %37k) izan zuten orduan laguntza teknikoaren inguruko jardueraren bat eta 1,8 milioi euro inguruko inbertsioa egin zen (2001-2005 aldirako Izartu programek bere osotasunean izan zuten guztizko inbertsioaren %0,8).


27. grafikoa: Izartu I eta Izartu II programek laguntza teknikoko jardueretarako aurreikusitako inbertsioen arteko konparazioa.



Lehenengo urtean 306.778 €koa izan da laguntza teknikoko gastua (aldi osorako neurri honetarako aurreikusitako guztizko inbertsioaren %13). Laguntzarako jardueren bidez gehien egin diren zereginen artean ditugu honakoak: kanpoko laguntza kontratatzea hirialdeak gizarte- eta ekonomia-mailan biziberritzeko eta lurraldetasunari begira berpizteko programa integrala idazteko, eta programa kudeatzeko laguntza teknikoak, batez ere udal-koordinazioaz arduratzeko eta jarduerak abian jartzeko. Aurreko Izartu programarekin (2001-2005 aldirako Izartu programarekin) alderatuta, azpikontratazioak pisu txikiagoa du obren zuzendaritzako neurri honen baitan eta proiektuen jarraipena egitean espezializatutako enpresetan, baita berariazko azterketa teknikoak prestatzerakoan ere. Alabaina, kasu askotan proiektuen kostuari berari egozten zaio

azpikontratazio hori. Bestalde, lehenengo urtean gaude, eta hori dela eta, oraindik ez dira hasi laguntzako neurri horien kontratazio gehienak.


28. grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu programen baitan 2004an egindako laguntza teknikoaren baitako jarduerak nagusiak



Publizitatearen eta hedatzearen inguruko ekintzei dagokienez, lehenengo urte honetan udalek erabili ohi dituzten bideak izan dira gehien erabili direnak, hau da, komunikatzeko udal-bideak, hala nola, web-orri ofizialak, udal-aldizkariak, herritarren postontzietara banatutako informazio-triptikoak.... Horien ondotik ditugu kartelak, panelak edo publizitate-hesiak, esku hartzeko zonatan daudenak. Hirugarrenik, prentsako edo bestelako ikus-entzunezko medioetako albisteak, udalak aurkeztutako Izartu programa Eusko Jaurlaritzak onartu duela eta dagokion zuzkidura emango duela jakinarazten dutenak.

29. grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu programen baitan 2004an komunikatzeko, informazioa emateko eta hedatzeko erabilitako tresnak

Herritarrei, proiektuen eragina izango dutenei, onuradunei eta abarri informazioa emateko hitzaldiak eta bilerak



Esku hartzeko zonetan kokatutako publizitateko kartelak, panelak edo hesiak, ekipamendu eta azpiegitura berrietan informazioa emateko jarritako plakak

Publizitate-kanpainak, eskualdeko prentsako edo/eta bestelako ikus-entzunezkoetako (irradi, tokiko TB, erkidegoko TB...) artikulak

Udalek informazioa emateko bideak (tokiko web-orria, tokiko buletin edo aldizkariak, postontziak...)

5. HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO PROZESUEN AURRERAPENAREN INGURUKO MEMORIA

Kapitulu honetan programek aldatu nahi duten errealitateari egindako ekarpenak aztertuko ditugu. Hau da, hurrengo ataletan barrena **Izartu ekimenak bi deialdietan (2001-2005 eta 2004-2008) izan duen azken xedeari eskainiko diogu arreta, hain zuzen ere, hirialdeak lurraldearen, ekonomiaren eta gizartearen aldetik gehiago egituratzeko eta kohesionatzeko helburuari.**

Izartu programak Euskal Autonomia Erkidegoan kaltetuen diren hirialdeak gizarte- eta ekonomia-mailan biziberritzen laguntzea du xede, **izaera erabateko eta integraleko jardueren bidez** (hirialdeak biziberritzeko erabateko programen bidez). Izan ere, jarduera horiek **batera heltzen diete hirialde horiek dituzten berariazko arazo guztiei** (gizartearen, ekonomiaren, ingurumenaren eta abarren ingurukoei), **horien lurraldearen, ekonomiaren eta gizartearen mailako kohesioa lortzeko azken xedearekin.**

Hortaz, 2001-2005 aldirako Izartu programari dagozkion jarduerak kohesioaren inguruko helburu hauetakoren batera bil daitezke, oro har eta ekintzaren tipologiari eta itxarotako xede edo eraginari jarraiki:

- *Lurralde-integrazioa, hurbilerraztasuna eta hiri-kohesioa hobetzea*
- *Informazio eta komunikazioaren inguruko teknologia berriak barne hartzea*
- *Ingurumena eta narriatutako inguruneak leheneratzea*
- *Ekonomia-jarduera sustatzea: enpresa berriak eta enplegua*
- *Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea*
- *Hiriaren irudia, kalitatea eta hiri-ingurunea hobetzea. Urbanizatzeko obrak eta birgaitzeko proiektuak.*
- *Udalerriak gizartearen, kulturaren eta jolasaren esparruko zerbitzu eta ekipamenduz hornitzea.*

2004-2008 aldirako Izartu programek diruz lagundutako jarduerak honakoak izan dituzte xede:

- *Lurralde-integrazioarekin zerikusia duten arazoak konpontzea*
- *Informazio eta komunikazioaren inguruko teknologia berriak barne hartzea*
- *Narriatutako edo/eta utzitako eremuak leheneratzea eta hobetzea*

- *Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea*
- *Hiri-jardueren ingurumen-eragina murriztea*
- *Gizarte- eta lan-bazterketa jasateko arriskuan diren taldeen aldeko diskriminazio positiboa*

Helburuetako batzuen izena bi deialdietan berdina izan ez bada ere, kohesioaren inguruko helburu orokor horietako bakoitzean barne hartutako jarduerak zehatz-mehatz aztertuz gero, horiek bateratu ahal izango ditugu. Horrela, Izartu I eta Izartu II programek izandako aurrerapenak, emaitzak eta eraginak konparatu eta aztertu ahal izango ditugu. Eta etorkizunean, 2004-2008 aldirako Izartu programek aurrera egin ahala, EAEko lurralde, ekonomia eta gizartearen kohesioan izandako emaitza metatuak eskaini ahal izango ditugu.

Horri jarraiki, honela multzokatu ditugu jarduerak:

➤ **Lurralde-integrazioa:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2005 aldirako Izartu programaren baitako *Lurralde-integrazioa, hurbilerraztasuna eta hiri-kohesioa hobetzea* helburua eta 2004-2008 aldirako Izartu programako *Lurralde-integrazioarekin zerikusia duten arazoak konpontzea* helburua.

Jardueren sailkapena: Batez ere hiri-inguruetako auzo eta eremu jakin batzuen hurbilerraztasuna eta hirigintza-egoera hobetzera bideratutako jarduerak hartzen ditu bere baitan (arrapalak, eskailerak, trafikoa antolatzea, udal-zerbitzuak eta hornidura publikoak hobetzea...). Halaber, horietatik hirigunera sartzeko bideak hobetzera bideratutakoak, hiri-sareari jarraitasuna emateko eta hiri-bilbe kohesionatuagoa osatzeko (bide berriak, oinezkoentzako pasabideak, arrapalak, espaloioak zabaltzea...).

➤ **Informazio eta komunikazioaren inguruko teknologiak barne hartzea:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2005 aldirako eta 2004-2008 aldirako Izartu programen *Informazio eta komunikazioaren inguruko teknologia berriak barne hartzea* helburua.

Jardueren sailkapena: IKTbak oro har biztanle guztiek eta berariazko talde batzuek (enpresa, udal-erakunde, emakumezko eta gazteek) gehiago erabiltzea

sustatzera bideratutako proiektuak, horretarako bideratutako eta prestatutako espazioak sortuz, prestakuntza-ikastaroak antolatuz, udal-zerbitzuak Internet bidez eskainiz... 2004-2008 aldirako Izartu programetan bi jarduera-mota baino ez dira barne hartu: zuntz optikoa sartzea eta udaletako administrazio-zerbitzuak digitalizatzea.

➤ **Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2005 aldirako Izartu programaren baitako *Ingurumena eta narriatutako inguruneak leheneratzea* helburua eta 2004-2008 aldirako Izartu programaren baitako *Narriatutako edo/eta utzitako eremuak leheneratzea eta hobetzea* helburua.

Jardueren sailkapena: Narriatutako inguruneak eta eremuak leheneratzeko eta hirialdeak ingurumenaren ikuspegitik hobetzeko jarduerak, inguruneaz goatzera, kontzientziazio ekologikora eta ingurumena zaintzera eta errespetatzera bideratutako espazioz eta ekipamenduz hornitzea.

➤ **Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2005 aldirako Izartu programen baitan *Ekonomia-jarduera sustatzea: enpresa berriak eta enplegua* eta *Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea* helburuak eta 2004-2008 aldirako Izartu programaren barruan *Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea* helburua.

Jardueren sailkapena: Tokiko ekonomia-jarduerari zuzenean laguntzeko jarduerak, negozio-aukera berriak sortzera bideratutakoak (mintegiak, hirugarren sektoreko, hain zuzen ere, kulturaren eta gizartearen mailako, jarduerak garatzeko eraikinak birgaitzea...) nahiz dauden enpresei laguntzera bideratutakoak (zerbitzuak, enpresaburuentzako, ETEetarako eta saltokietarako ikastaroak, birgaitzeak, hiriguneak, plazak eta erdialdeko kaleak oinezkoentzat bihurtzea gizartea eta hirugarren sektorea garatzeko...). Jarduera hauek lotura estua dute esku hartzeko zonetan turismoa garatzearekin. Esparru honetako berariazko jarduerak ere hartu dira barne, hala nola, pasealekuak, mendi-ibiliak egiteko ibilbideak eta abar sortzea.

➤ **Hiriaren irudia eta egoera hobetzea:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2004 aldirako Izartu programen baitan *Hiriaren irudia, kalitatea eta hiri-ingurunea hobetzea. Urbanizatzeko obrak eta*

birgaitzeko proiektuak, eta 2004-2008 aldirako Izartu programen baitan Hiri-jardueren ingurumen-eragina murriztea helburua.

Jardueren sailkapena: Hirigintza-hobekuntzak egitea eta udal-zerbitzu eta -sareak hobetzea, hiri-azpiegiturak hornitzea eta instalatzea, urbanizatzeko planak, espazio publikoak (parkeak, plazak, lorategiak...) gaitzea, udalerrietako erdiguneak eta inguru bereziak oinezkoentzat bihurtzea eta hobetzea, hiri-irudia hobetzea herrigune historikoak, eraikinak, etxebizitzak eta abar birgaitzeko proiektuen bidez.

➤ **Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2005 aldirako Izartu programaren barruan *Udalerriak gizartearen, kulturaren eta jolasaren esparruko zerbitzu eta ekipamenduz hornitzea* helburua eta 2004-2008 aldirako Izartu programako *Gizarte- eta lan-bazterketa jasateko arriskuan diren taldeen aldeko diskriminazio positiboa* helburua.

Jardueren sailkapena: Hirugarren sektoreko zerbitzu eta ekipamenduak sortzea: gizarte- eta kultura-zentroak, liburutegiak, hirugarren adinekoentzako, emakumezkoentzako, gazteentzako edo gizarte-bazterketa jasaten duten taldeentzako espazioak, eraikin eta areto balioanitzak eta berariazko gizarte-zerbitzu eta -programak (berdintasun-planak, hurbilerraztasuna areagotzeko planak..).

Gogoan izan **jardueren sailkapena ez dela zehatza, Izartu programak programa integral direnez proiektuetako askok helburu bat edo gehiago izan ditzaketelako**. Haatik, banaketa horrek aukera eskainiko digu hobeto zenbatesteko horietako bakoitzean izandako aurrerapena eta lortutako emaitza edo eraginak.


Bi Izartu programetan diruz lagundutako jarduerak helburuen arabera banatu eta horiek konparatu ostean ikus dezakegu bi deialdien artean badela alderik, nahiz eta ez izan oso desberdintasun esanguratsurik.

2001-2005 aldirako Izartu programen nahiz 2004-2008 aldirako Izartu programen kasuan, honetara bil ditzakegu jarduera-kopuru eta inbertsio handiena izan duten helburuak: *Hiriaren irudia eta egoera hobetzea, Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea eta lurralde-integrazioa*. Garrantziaren arabera ordena hori (jarduerak eta inbertsioa kontuan hartzen dituen) Izartu programen lehen deialdiari

dagokio. Bigarren deialdiarena honakoa litzateke: Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea, lurralde-integrazioa eta hiriaren irudia eta egoera hobetzea.

Aitzitik, honakoak dira oraindik ere jarduera-kopuru eta inbertsio txikiena duten helburuak: *IKTBak barne hartzea, Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea eta Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak*, nahiz eta Izartu II programaren kasuan azkeneko helburu horrek garrantzi handiagoa izan inbertsioari begira.

30. grafikoa: Izartu I eta Izartu II programen jardueren sailkapenen arteko konparazioa helburu orokorren arabera



Ondoren aurkeztuko ditugun ataletan prestatutako esku hartzeetan eta lortutako emaitzetan eta eraginetan izandako aurrerapenen inguruko datuak eskainiko ditugu. Alabaina, 2004-2008 aldirako Izartu programak bere bideari ekin besterik ez dionez egin eta ia ez denez emaitzarik izan, batez ere lortu nahi diren helburuen eta espero diren eraginen deskribapen kualitatiboari erreparatuko diogu. 2001-2005 aldirako Izartu programari dagokionez, berriz, aurkeztutako datuak beren eragin-eremuetan lurraldearen, ekonomiaren eta gizartearen inguruko egituratze eta kohesio handiagoa lortzeko bidean egindako aurrerapenari buruzkoak izango dira, berorren onuradun izan direnak beren ibilbidearen azken zatian baitaude dagoeneko.


5.1. HELBURUETAN IZANDAKO AURRERAPENA: INBERTSIOA ETA EGINDAKOA

Atal honetan **kohesioaren inguruko helburu orokor bakoitzean izandako aurrerapena** aztertuko dugu, **egindako inbertsioaren arabera eta jardueretako bakoitzean egin denari jarraiki** (jarduera bakoitzak bere baitan hartzen dituen ekintzak aintzat izanik).

Berriz ere azpimarratu behar dugu 2001-2005 aldirako Izartu programak beren laugarren urtean direla eta 2004-2008 aldirako Izartu programak, berriz, lehenengoan. Ebazpena uztailakoa denez, programak sei hilabeteko bidea besterik ez du egin.

Inbertsioari begira, bi deialdietan ikus dezakegu *Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak* deritzan helburua dela aurreratuen doana. Izartu I programako jarduera gehien biltzen dituzten helburuei dagokienez, *Hiriaren irudia eta egoera hobetzea* helburuak zedarritzen du oro har programaren erritmoa, %60koa, hain zuzen ere. Izartu II programan, aldiz, gastuaren erritmoa, %5ekoa, ondokoek zedarritzen dute: *Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea eta lurralde-integrazioa* helburuek.

31. grafikoa: Kohesioaren inguruko helburu orokorrak. 2001-2004 aldian egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera.




Egin denari erreparatzen badiogu (lortu nahi den helburura iristeko jarduerak barne hartzen dituzten esku-hartzeei begiratzen badiegu), **tokiko arduradunek hautemandako aurrerapenak**, egindakoaren arabera adierazleen bidez neurtutakoak, jardueren inguruko errealitatearen eta horien aurrerapenaren **ikuspegi deskriptiboagoa eskaintzen** digu.

Horri jarraiki, egin dena egindako inbertsioarekin konparatzen badugu, ikusi ahal izan dugu batez besteko gauzatze-erritmoa %61ekoa izan dela Izartu I programaren onuradunen kasuan, eta hori egindako inbertsioaren antzekoa dela (%60). Haatik, hori ez da berdin gauzatu kohesioaren inguruko helburu orokor guztietan. Izan ere, egindakoari begiratuta honakoak izan dira helbururik aurreratuenak: Hiriaren irudia eta egoera hobetzea, Enpresaburuak, ETEak, Turismoa eta udal-ondarea babestea eta Informazio eta komunikazioaren inguruko teknologia berriak barne hartzea. Aitzitik, Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak helburuaren inguruko jarduerak egiteko erritmoa batez bestekoa baino txikiagoa da, ez baita aurreikusitako esku-hartzeen %60ra iritsi, nahiz eta inbertsioaren %70 gauzatu.

2004-2008 aldirako Izartu programen kasuan, helburu guztietan ikusi ahal izan dugu aurrerapena handiagoa izan dela esku-hartzeak egiterakoan gastua egiterakoan baino. Ia kasu guztietan bikoiztu da aurreikusitako esku-hartzeak gauzatzeko ehunekoa.

32. grafikoa: Kohesioaren inguruko helburu orokorrak. 2001-2004 aldian egindakoa guztizko inbertsioaren arabera.




5.2. HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO PROZESUETAN IZANDAKO EMAITZAK ETA ERAGINAK

Kohesioaren inguruko helburu orokorretako bakoitza bereiz eta berak izandako ekonomia-aurrerapenaren eta egindakoaren arabera eta barne hartzen dituen jardueren tipologiari eta udalerrri onuradunei jarraiki aztertuz gero, **2001-2005 aldirako Izartu programak lortutako emaitza eta eragin nagusien deskribapen zehatza** eskain dezakegu. Horrezaz gain, 2004-2008 aldirako Izartu programarekin lortu nahi diren emaitzei buruzko datuak emango ditugu, oraindik oso goiz delako horiek zenbatesten hasteko.

5.2.1. Lurralde-integrazioa

2004. urtean, helburu honetan barne hartutako jardueren tipologiari jarraiki, berriz ere honakoak izan dira Izartu I programaren bidez lortutako aurrerapenik handienak: hurbilerraztasuna eta komunikazioak hobetzearekin zerikusia duten jardueren ingurukoak (sarbide mekaniko berriak, oinezkoentzat nahiz ibilgailuentzat, galtzadak oinezkoentzat bihurtzea...) eta hiri-bilbearekiko komunikazioak hobetzeraz eta inguruetako auzoak edo bizitegi-nukleoak azpiegituz hornitzera bideratutakoak.

33. grafikoa: Lurralde-integrazioa. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2004.



Horien artean nabarmentzekoak dira honakoak: 54.324 m² espazio publiko gaitzea, 58 km bide hobetzea, oinezkoen sarbiderako eta ibilgailuetarako beste 10.000 m lineal sortzea eta saneamendu-azpiegiturak eta bestelako zerbitzuak hobetzea udalerrri onuradunen inguruko 15 bizitegi-auzotan baino gehiagotan.

Horren ondorioak hautematen dira dagoeneko hiri-bilbearen kohesioan, sare egituratu eta hurbilerraza ari baita sortzen. Auzoen eta eremu jakin batzuen arteko eta horien eta hiriguneen arteko loturak areagotu dira: bideak oinezkoentzat bihurtzea, pasabide berriak, komunikazioak hobetzea... Gisa horretan hiriguneetako trafikoa arintzea eta hiriguneak herritar guztientzat hurbilerrazago izatea lortu da.

- **Basaurin** traba arkitektonikoak kendu dira eta hurbilerraztasuna hobetu. RENFEren trenbideen azpiko tunel baten bidez Kareaga Behekoa eta Zumalakarregi kaleak elkartu dira, ibilgailuak bertatik igarotzeko eta herrigune osoa zeharkatu behar izatea saihesteko. Gisa horretan pertsonen eta ibilgailuen joan-etorria erraztu da, eta bide batez bertako herritarren bizi-kalitatea hobetu.
- **Erandion**, bestalde, 22.344 m²-ko azalera leheneratu eta urbanizatu da, eta horrek udalerriko hainbat eremuren arteko barne-komunikazioa erraztu du. Hori herritar ugariren mesederako izan da.
- **Sestaon**, berriz, higiezinak eskuratzen jarraitzen dute (66 etxebizitza eta lokal) hiri-bilbearen erdiguneko Galtzada Nagusia luzatu ahal izateko, barne- nahiz kanpo-komunikazioarekin zerikusia duten arazoak konpontzeko asmoarekin. Hori mesedegarria izango da bertara oinez iritsi ahal izateko.

Hurbilerraztasuna nabarmen hobetu da azpiegiturak hobetzearen bidez eta traba arkitektonikoak kentzearen bidez, gisa horretan pertsonen nahiz ibilgailuen joan-etorriak erraztu direlako. Hurbilerraztasuna hobetzearen ondorio da, halaber, herritarren osasun-arreta eta gizarte- eta osasun-arreta hobetzea.

- **Karrantzan** auzoen arteko komunikazioak hobetzen jarraitzen dute. Bizitegi-nukleo jakin batzuetarako hurbilerraztasuna ari dira aintzat hartzen bereziki. Kontuan izan bertako biztanleria 48 auzotan dagoela banatuta. Hori dela eta, hurbilerraztasuna areagotzeak osasun-arreta eta gizarte- eta osasun-arretaren inguruko zerbitzuak hobetzea ahalbidetu du.
- **Soraluzen** 8.000 m² sarbide hobetu dituzte, batez ere Olea-Santa Ana industrigunera iristeko. Horrek hainbat eremuren arteko kohesioa hobetzen lagundu du.

- ***Erandion** nabarmen hobetu da Alzaga auzorako sarbidea, 5.845 m² bide egin baitira, baita espaloiak birgaitu ere. Zuzenean eragin da 1.227 ml-eko bidean eta oinezkoentzako 510 ml eraiki dira. Horrek merkataritza-irudia hobetzen lagundu du batez ere.*

Kohesioaren inguruko helburu orokor hau da 2004-2008 aldirako Izartu programen onuradun izan diren udalerrien artean harrera handiena izan duenetako bat. Izan ere, bigarren Izartu programaren onuradun izan diren 40 herrik baino gehiagok proposatu dituzte *lurralde-integrazioa* lortzera bideratutako jarduerak.

Diruz lagundutako jardueren tipologia ez da aldatu, lehenengo deialdikoekin erkatuz gero. Proiektuak hiri-inguruko auzo edo landagune jakin batzuen hurbilerraztasuna eta hirigintza-egoera hobetzera bideratutakoak (arrapalak, eskailerak, trafikoa antolatzea, udal-zerbitzuak hobetzea eta hornidura publikoak) eta horietatik herrigunerako sarbidea hobetzera bideratutakoak izan dira bereziki, hiri-bilbadurari jarraitasuna emateko xedearekin (bide berriak, oinezkoentzako pasabideak, espaloiak zabaltzea...). **Honakoak ditugu esperotako emaitzen artean: 400 m bidegorri baino gehiago, 16.000 m pasabide, igarobide, arrapala..., 202.000 m²-ko bide-azaleran (errepide eta espaloietan) eragiteko jarduerak, birgaituko diren 38 km bide eta sarbide...**

Bide horretatik, *Oiartzun* eta *Astigarragan* oinezkoentzako sarbideak hobetzea eta bidegorriak eraikitzearen bidez mugikortasun iraunkorra areagotzea proposatzen da. *Bestalde, Derio, Abanto Zierbena, Antzuola, Ugao-Miraballes, Segura, Erandio* eta *Artzentaleseko* programen bidez ibilgailuetarako nahiz oinezkoentzako sarbide berriak egingo dira.

Bergara, Bilbao, Hondarribia, Irun, Ibarra, Andoain, Elgoibar eta *Markina-Xemeinen* egin dituzte batez ere hiri-inguruetako auzoen hirigintza-egoera hobetzeko lanak, eta, aldi berean, ekipamendu publiko eta espazio librez hornitu dituzte auzo horiek. *Karrantza, Iurreta* eta *Legorreta* udalerrietan, berriz, bizitegi-nukleoetarako sarbideak eta bertako zerbitzuak hobetzea proposatu da.

Hainbat udalerrian egin dira bizitegi-auzoetarako hurbilerraztasuna eta horien eta hiriguneen arteko loturak hobetzen dituzten oinetzkoentzako pasabideak (ibaien gainetan...), trenbide-pasaguneak, igogailuak, arrapalak edo eskailera mekanikoak eraikitzea eta oinezkoen nahiz ibilgailuen sarrera zailtzen duten aldapak eta maldak gutxitzea helburu


duten proiektuak. Hona hemen udalerri horiek: *Etxebarri, Gernika-Lumo, Villabona, Andoain, Vitoria-Gasteiz, Galdakao, Basauri, Agurain, Ermua, Bermeo, Trapagaran, Mutriku, Leioa eta Lezo.*

Udalerrian oro har hurbilerraztasuna hobetzera bideratutako proiektuen artean, hurbilerraztasun areagotzeko planak, kaleak oinezkoentzat bihurtzeko lanak, ekipamendu eta hornidura publikoetarako sarbideak egin dira ondorengo udalerrietan: *Güeñes, Hernani, Sopuerta, Zegama, Lasarte-Oria, Elorrio eta Areatza.*

5.2.2. Informazio eta komunikazioaren inguruko teknologia berriak barne hartzea

2001-2005 aldirako Izartu programei dagokienez, eta helburu honetan barne hartutako jarduera-motari jarraiki, **helburu hori lortzeko prestatutako gela edo zentro informatikoen ingurukoak dira aurreratuen doazen jarduerak, nahiz eta IKTBetan prestatzeko ikastaroekin zerikusia duten proiektuek izan duten aurrerapenik handiena aurreko ekitaldiarekin erkatuz gero.** Izan ere, 2003an aurreikusitako esku-hartzeen %7ra besterik ez ziren iritsi.

34. grafikoa: IKTbak. Aurrerapena jardueren tipologiaen arabera. 2001-2004.



IKTBen erabilera sustatzea xede duen helburu honen gaineko eragina medio, horiek erabiltzen lagunduko duten azpiegiturak ari dira sortzen.

- *Mungian* zentro berria dute joan zen ekitaldiaz geroztik. 100 m² inguruko azalera dute teknologia berriak eta energia berriztagarriak erabiltzeko.
- *Mutrikun* beste bi ekipamendu sortu dituzte, eta horrek 700 pertsonari ekarri die onura.
- *Barakaldo Gurutzetan* Interneterako sarbidea duten 7 zentro publiko sortu dituzte.

Horrezaz gain, zolatzeko lanak egiteko garaian teknologia berrietarako sarbidea errazteko beharrezko diren azpiegiturak jarri dira zenbait zonaldetan, hori mesedegarri izango baita

lan horien eragina izan duten zonaldeetako saltokietarako nahiz partikularren etxeetarako. Bide horretatik, herritarren heziketa-maila hobetu da, informazioa izateak eta zerbitzuen eskaintza zabalaren berri izateak ezagutzea eta ezagutza trukatzeko ahalbidetzen duelako.

- ***Mendaron** 2002az geroztik dute udalerriko etxe guztiek banda zabalaren sarean sartzeko aukera. Guztira 1.100 erabiltzaile izatera iritsi dira.*
- ***Balmasedan** 1.736 m zolatzeko lanak egin dira, udalerriko hainbat kale eta auzotan, eta IKTBetarako sarbidea ahalbidetzen duten azpiegiturak sartu dira.*


Horrekin batera, IKTBetan prestatzeko hainbat programa ari dira ezartzen, lan-munduan sartzeko zailtasunak dituzten taldeei bideratuta. Horrezaz gain, IKTBak enpresa-ehunean zenbateraino ezarri diren ezagutzea xede duten programak sortu dira.

2004-2008 aldirako Izartu programei dagokienez, bi proiektu-mota bereiz ditzakegu helburu honen barruan diruz lagundutakoen artean: zuntz optikoa sartzeko udalerrian eta hiri-inguruko auzoetan (Artzentales eta Agurainen, esate batera), herritar guztiek izan dezaten IKTbak erabiltzeko aukera, eta, bestetik, udal-zerbitzuak digitalizatzerako bideratutako jarduerak (e-administrazioa), Azpeitia, Areatza eta Mutrikuko programen baitan aurkeztutakoak, esate baterako. Bigarren programaren onuradunek lortu nahi dituzten emaitzen artean dugu **zuntz optikoa 20 km baino gehiagotan instalatzeko xedea, 30 km baino gehiagoko azalera barne hartzeko helburuarekin.** Tokiko administrazio-zerbitzuak digitalizatzeari begira, zerbitzu guztiak IKTBen bidez eskaini ahal izatea lortu nahi da.

5.2.3. Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea:

2001-2005 aldirako Izartu programaren baitako helburu honi dagokionez, honakoak dira aurreratuen doazen jarduerak: zerbitzu- eta hornidura-sareetan irizpide "ekologikoei" jarraiki egin diren hobekuntzak eta espazioak ingurumenaz gozatzeko eta kontzientziazio ekologikoa sustatzeko leheneratzea eta egokitzea. Aurrerapen txikiagoa izan dute ibaiak eta badien inguruak leheneratzea helburu zuten beste jarduera garrantzitsuago batzuek eta industria-aurriak eraistearekin, enpresak lekualdatzearekin eta bizitegi- eta industria-erabilerak berriz antolatzearekin zerikusia duten beste jarduera batzuek.

35. grafikoa: Ingurumena. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2004.



Helburu honen baitako emaitza nagusien artean honakoak ditugu: 120.659 m²-ko espazio publikoa hobetu da eta hornidurako lur azpiko sareetako 1.117,5 m lineal eta 2.822 m lineal hobi biltzaile, bide eta kanal leheneratu eta/edo egokitu dira. Bestalde, ingurumenean izandako eragina eta narriatutako inguruneak leheneratzea dira herritarrek gehien eta ondoen balioetsitakoak. Jarduera gehien-gehienak hiri-esparru jakin batzuk hobetzera bideratutakoak izan dira. Horien artean ditugu saneamendua, kutsadura bisuala eta akustikoa, baita gasei dagokiena ere, gutxitzea, eta abar.

- ***Mendaron** 138 etxebizitzatara iristen den saneamendu eta ur-horniduraren sarea berritu dute, baita udalerri osoko hornidura elektrikoaren sarea ere.*
- ***Urretxun** 40 ml hobetu dituzte hornidura-sareetan eta 600 ml sare elektrikoetan.*
- ***Tolosan** saneamenduko 1.444 ml eta edateko uraren sareko 699 ml hobetu dituzte.*

Hirialdeetan bertan hobekuntza handiak egin dira eta horiek oso eragin ona izan dute herritarrengan, narriatutako hiri-inguruak leheneratzea ahalbidetu baita, espazio libre berriak sortuz eta, aldi berean, udalerriko merkataritza-jarduera eta zerbitzuak sustatuz.

- ***Elgoibarren**, eraikin baten aurriak eraistearen bidez, oso narriatuta zegoen ingurua leheneratu dute, eta hiri-ingurua eta berorren irudia nabarmen hobetu da. Horrezaz gain, 45 etxebizitza birgaitu dira eta horietarako sarbideak hobetu (eskailerak, aparkalekuak...).*

- **Soraluzen** narriatutako eraikinak eraitsi dira, eta horrela, hiriaren irudia hobetu da, baita ingurumenaren kalitatea eta udalerriko espazio publikoa ere (3.400 m²).
- **Urretxun** 1.350 m²-ko hiri-azalera libratu da, baita berriz urbanizatu ere (eraistek, espaloiak eta galtzadak birgaitzea...). Horri esker udalerraren merkataritza-izaera nabarmen hobetu da, eta espazio publikoa erabiltzen duten pertsonen kopuruak gora egin du.
- **Zegaman** hainbat hobekuntza egin dituzte hirigintza-azpiegituran (oinezkoentzako 2.000 m² kale, 300 m²-ko espazio libratua eta abar). Horri esker %100 handitu da hurbilerraztasuna eta ingurumen-eraginaren %90 murriztu da.
- **Tolosan** 4.744 m²-ko espazio publikoa birgaitu dute, etxebizitzak birgaitzeko 30 jarduera egin dira eta 16 zabor-edukiontzi sartu dituzte lurpean.
- **Galdakaon** udalerriko hainbat kaletan hobetu dituzte hirigintza-azpiegiturak (zaharberritzeak, bide berriak, eraistea...). 732 m galtzada berritu dira, 8.990 m² espaloi birgaitu dira eta 792 m kale oinezkoentzat bihurtu).
- **Balmasedan** narriatutako 2.460 m² leheneratu dira, eta 1.535 m²-ko azalera urbanizatu da berriz.
- **Bermeon** eraikin zahar bat eraitsi dute, eta horri esker, hobetu egin da hiriaren irudia, utzitako eraikin horrek zuen begi-inpaktua gutxitu delako.
- **Leioan** hirigintza-plan handizalea idatzi dute, hurrengo 5 urteetan 339 etxebizitza eraiki ahal izateko egun oso narriatuta dagoen auzo batean.
- **Alonsotegin** landagune bat berritu dute. Horri esker, 500 m²-ko espazioa leheneratu da eta oinezkoen eta ibilgailuen hurbilerraztasuna hobetu da. Beste inguru batzuetan eraiste-lanak egin dituzte (10.000 m³), eta horri esker 1.000 m²-ko azalera lortu dute.
- **Erandion** hiri-ingurunea hobetzeko ahalegin handia egin dute: 5.845 m² galtzada eta espaloi birgaitu dituzte, 4.495 m²-ko espazio librea lortu dute eta 22.344 m² urbanizatu dituzte.
- **Soraluzen** 8.000 m² bide eta espazio publiko hobetu dituzte. Horren bidez, aisiarako 5.395 m²-ko eremua lortu dute eta ibilgailuen trafikoa murriztu egin da herrigunean. Gainera, aukera dute herrigunea asteburuetan oinezkoentzat bihurtzeko.

Amaitzeko, azpimarratzekoak dira natur ingurunea (ibaiak, bidexkak...) hobetzeko eta leheneratzeko jarduerak. Izan ere, horien bidez ingurumena eta bertako herritarren bizi-kalitatea hobetu dira, baita udalerriek turismoa erakartzeko duten ahalmena areagotu ere:

- **Lezo-Oiartzunen** ibaiaren 2.355 m ubide leheneratu dira. Horrezaz gain, 4 hondakindegia eta harrobi leheneratu dituzte.
- **Mutrikun** 1.802 m²-ko azalera berreskuratu dute eta ingurumena hobetu dute 1.102 m²-tan. Horrek guztiak herritarren bizi-kalitatea hobetzen eta turismoa erakartzeko ahalmena areagotzen lagundu du.
- **Alonsotegin** garai bateko baso-bideak birgaitu dituzte (51.500 m²), mendi-ibiliak egin ahal izateko, aisiarako eta inguruneaz gozatzeko beste aukera bat eskaintzeko helburuarekin.

Izarturen bigarren deialdiaren baitan diruz lagundutako programei dagokienez, hauxe dugu pisu handiena duen helburua, helburu honen baitako proiekturen bat aurkeztu duten udalerrien kopuruari begira nahiz diruz lagundutako jardueren kopuruari edo horien inbertsioari begira. Helburu honetan multzokatutako jarduerak askotarikoak diren arren, iraunkortasunaren alde egitea eta ingurunea zaintzea helburu duten proiektuak izatea dute ezaugarri. Hori dela eta, ingurunea zaintzea eta herritarrak ingurumenaren inguruan kontzientziatzea dute helburu herrietan kaleak, auzoak, espazio irekiak eta azpiegitura anitzak berriz urbanizatzea eta birgaitzea eta ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak eta eremuak leheneratzera bideratutako ekintzek, hiriaren irudia hobetzeaz gain.

Hori kontuan izanik, 1.134.931 m² inguruko azaleran eragitea proposatzen da. Azalera horren ia erdia (472.000 m²) libratutako eta berriz egokitutako espazio publikoa litzateke, natur ingurunekoa nahiz hiri-ingurunekoa (oinezkoentzako azalera, plazak, lorategiak, parkeak...).

Hona hemen kaleak eta auzoak berriz urbanizatzeko (azpiegiturak berritzeko, hurbilerraztasuna areagotzeko, traba arkitektonikoak kentzeko, zolatzeko lanak egiteko), espazio publikoak hobetzeko, enpresak lekualdatzeko eta abarretarako jarduerak aurkeztu dituzten udalerriak: *Eskoriatza, Orio, Errenteria, Etxebarri, Galdakao, Villabona, Otxandio, Güeñes, Hernani, Hondarribia, Tolosa, Igorre, Soralue, Sopuerta, Irun, Portugalete, Sestao, Segura, Karrantza, Antzuola, Balmaseda, Legorreta, Zalla, Elorrio, Durango, Astigarraga, Lemoiz, Artzentales, Zeanuri, Mallabia, Zierbena, Markina-Xemein, Areatza, Agurain, Zumaia, Ibarra, Donostia, Lezo, Zegama, Mutriku, Lekeitio, Amorebieta, Zaldibia*

eta Arrasate. Honakoak dira, aldiz, herriguneetan narriatutako eraikinak erabilera sozialerako eta hirugarren sektoreko erabileretarako birgaitzeko proiektuak aurkeztu dituzten udalerriak: Tolosa, Antzuola, Durango, Azpeitia, Artzentales eta Bergara.


*Bilbao, Astigarraga eta Ibarra udalerriek irtenbide berariazkoagoak eman dizkiete beren herrietako iraunkortasunaren inguruko giltzarriei: udal-zerbitzuak eta -azpiegiturak hobetzeko jarduerak (saneamendua, ur-hornidura, argiak...), irizpide ekologikoei jarraiki gauzatutakoak. *Oiartzun, Eskoriatza, Orio, Villabona, Basauri, Legazpi, Azpeitia, Turtzioz, Balmaseda eta Elorriok mugikortasun iraunkorra sustatzera bideratutako jarduerak egitea aurreikusi dute, baita udalerriko hainbat zonalderen arteko hausturak ekiditea, bidegorriak egitea eta abar ere, betiere trafikoa arintzeko eta ibilgailu pribatuen alternatiba izan daitezkeen garraioak sustatzeko xedearekin.**

Amaitzeko, natur inguruneak eta parajeak leheneratzera eta hobetzera bideratutako jarduerak ere hartu dituzte barne 2004-2008 aldirako Izartu programek. Orio, Bermeo, Agurain, Sopuerta, Iurreta, Basauri, Ugao-Miraballes, Leioa, Donostia, Artzentales, Lezo, Zegama, Areatza, Amorebieta eta Lasarte-Orian ibaien ertzak leheneratu, espazio irekiak birgaitu, industria-aurriak kendu eta espazio berdeak sortu nahi dituzte.

5.2.4. Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea:

Helburu honen baitako jarduera guztiak asko aurreratu dituzte lehen Izartu programaren onuradun izan zirenek, lortu nahi ziren emaitza eta eraginei begira. Gehiago aurreratu direla eta, bereziki azpimarragarriak dira turismoa sustatzearekin zerikusia duten jarduerak, baita merkataritza-sektorea babestera eta ekonomia-jarduerarako azalera egokitzea bideratutakoak ere. Enpresa berriak sortzera bideratutako jarduerak ez dira besteak adina garatu, iaz gertatu bezala.

36. grafikoa: Ekonomia-jarduera. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera.
2001-2004.



Bestalde, azpimarratzeko modukoak izan dira lorturako emaitzak: 30.000 m²-ko azalera gaitu da produkzio-jarduerak garatzeko, 46 pabilioi eta lokal eraiki eta/edo berregokitu dira, 60 enpresa-proiektu sortu dira eta 526 lagunek hartu dute parte prestakuntza-ikastaroetan eta enplegu-programetan.

Produkzio-jarduerarako zonak egokitzeari dagokionez, espazio berria batez ere industria-eta merkataritza-jarduera garatzeko sortu da.

- *Bilbao Zaharrean 1.700 m²-ko merkataritza-azalera birgaitzea lortu dute, merkataritza-lokalak birgaitzeko egin duten programaren bidez.*

- **Basaurin** merkataritza biziberritzeko proiektu bat egin da eta horren bidez hainbat laguntza eman dira. Inguru horretako 14 saltokik lortu dituzte laguntza horiek.
- **Muskizen** merkataritza-zona berrian 9 enpresa kokatuko direla baieztatu dute eta beste 20k kokaleku horren inguruko interesa adierazi dute, merkataritza-lokalak birgaitzeko egindako lanaren ondoren.
- **Balmasedan** udal-ondareztat jotako hainbat kale eta auzo zolatzeko lanak egin dituzte, herritarrek eta bisitariek herrigune historikorako sarbide hobea izan dezaten.
- **Trapagaranen** udalerriko bi enpresa lagundu dituzte, merkataritza eta hirugarren sektorea sustatzeko eta babesteko inbertsioak egiten laguntzeko plan baten bidez.
- **Zegaman** beste 2 pabilioi eraiki dira industria-jarduera garatzeko (11.441 m²).

Beharrezko azpiegiturak sortzeaz gain, lehendik zeuden enpresa txikiei laguntzeko eta beste berri batzuk sortzeko hamaika programa garatu dira, batez ere hirugarren sektoreari begira eta enplegua sortzen eta lan-munduratzeko helburuarekin.

- **Irunen** 46 enpresa-ekimen hauteman dira, 72 enpresa-proiekturi eman zaio aholku eta 9 enpresa sortu dira. Gainera, 3 azoka eta beste zenbait ekitaldi (musika, enpresa-bilerak...) egin dira.
- **Legazpin** bi ekonomia-jarduera sortu dituzte, dibertsifikatzeko ildoari jarraiki, industria-sektoreari oso lotuta jarraitzen baitu.
- **Zegaman** ehungintzako gizarte-ekonomiako enpresa sortu da. Emakumezkoentzako 6 lanpostu sortu dira.
- **Leioan** 75 lagun lan-merkatuan berriz sartzea lortu da, enpresa berriak sustatzeko programari esker.
- **Basaurin** enplegu-ekimenen zentroa ireki dute Baskonia kalean, baita enpresa-mintegia ere. Hori dela eta, autoenplegua bultzatu nahi da.
- **Trapagaranen** 15 enpresa sortu dira eta 21 prestakuntza-ikastaro egin dituzte. Ikastaroek oso harrera ona izan dute eta parte-hartzaileen asetasun-maila handia izan da. Horrezaz gain, 10 jarduera prestatu dira aukera-berdintasunaren inguruko kanpainaren baitan.
- **Barakaldo-Lutxanan** 18 lanpostu sortu dira eta 6 homologazio egin dira segurtasuneko jagole gisa. Gisa horretan, herritarren segurtasuna hobetu da eta zailtasunak dituzten taldeak lan-munduratzeko sustatu.

- **Amurrion** birziklatzearen inguruan prestatzeko 8 ikastaro egin dituzte. IKTen inguruko premiari buruzko diagnostikoa egin dute eta teknologia berrien gela diseinatu dute. Horri esker enpresen lehiakortasunak gora egin du eta administrazioak horiei eskainitako zerbitzuak hobetu egin dira.

Horiez gain, ostatuak eta interpretazio-zentroak sortzeko beharrezko azpiegiturak eraikitzeko lanak egin dira, udalerrien eta horien inguruen erakargarritasun turistikoa hobetzeko asmoarekin.

- **Zegaman** Aduntzako Egurraren Interpretazio Zentroa sortu da, aurreko urteetan garatutako bi proiektuen ondoren, alegia Arakama Azpikoa errota eta Herriko Ostua turismoari harrera egiteko leku gisa birgaitu ondoren.
- **Mutrikun** Luaro etxea "Euskararen etxe" izateko birgaitzeko lanak amaitu dituzte, eta udalerriko beste dorretxeetako bat zaharberritu dute.
- **Alonsotegin** 500 m²-ko azalera leheneratu da Zamundiko Santa Kiterian aisiarako eremua sortzeko, eta garai bateko baso-bideen 500 m² egokitu dira mendi-ibiliak egiteko ibilbide gisa. Garai bateko basetxea gazte-aterpetxe gisa birgaitzeko lanak ere amaitu dira.
- **Ordizian** 19 azoka egin dira, erakusketa 2.212 m zabaltzearen bidez. Guztira 676 salerosle, partaide eta artzainek hartu dute parte horietan.
- **Karrantzan** arrakasta handia izan dute zirkuitu turistikoetan sartzeko garaian. Hainbat azokatan hartu dute parte, ia argitalpen guztiak berritu dituzte eta informazio turistikoa emateko zerbitzuak hobetu dituzte. 2.600 kontsultari erantzun zaie aurrean eta haranera egindako bisitak nabarmen ugartu dira, batez ere Pozalaguako kobazuloetara egindakoak (urteko 47.000 bisita). Horiek bermatzen dute helburu hau bete dela.

2004-2008 aldirako Izartu programei dagokienez, ez da aldatu helburu honen baitan garatutako jardueren tipologia. Hortaz, enpleguak (200) eta enpresak (70) sortzea aurreikusi da, haztegien, mintegien eta sektore jakin batzuk sustatzearen (gizarte-ekonomia eta abar) bidez. Gainera, lehendik dauden enpresei laguntzea aurreikusi da, enpresetarako prestatuko diren ekipamenduei eta zerbitzu berriei esker (ekonomia-jarduera babesteko 24 ekipamendu berri, 118 ikastaro eta prestatutako zerbitzu, 500 enpresa onuradun baino gehiago eta horien zuzeneko 1.400 onuradun). Halaber, merkataritza biziberritzea proposatu da, zuzenean laguntzeko berariazko programen bidez nahiz herriguneak birgaitzearen, kaleak oinezkoentzat bihurtzeko ekintzen, hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko ekintzen eta abarren bidez.

Norabide horretan, tokiko ekonomia-jarduera dibertsifikatzeko jarduerak hartu dira barne, negozio-aukera berriak (mintegiak, haztegiak eta abar) sortzeko eta lehendik dagoen enpresa-bilbeari laguntzeko, ekipamendu, zerbitzu eta programa berrien bidez. Bide horretatik, *Gernika-Lumo* eta *Agurainen* bi enpresa-mintegi sortzea aurreikusi da, industria- eta zerbitzu-jarduera berriak hartzeko xedearekin. *Donostian* 27 industrialdea gizarte-ekonomiako enpresen gune bihurtzeko estrategia jarri nahi da abian. Gainera, udalerrri horretan bertan bada enpresaburuei aholku eta laguntza ematera bideratutako proiektu bat, enpresa eta langileentzako topagune estrategikoa sortzeko asmoa izango duena. *Ugao-Miraballesen* Axila industrialdeari zerbitzu eskaintzeko aparkalekua eraikitzeko proiektua egin dute eta *Mutrikun* enpresa-jarduera babesteko programa hartu dute barne, zerbitzu berriak sustatzearen eta egituratzearen bidez, ekonomia-jarduerarako mintegiaren sorrera sustatzeaz gain.

Diru-laguntza horien ildo berekoak dira eraikinak birgaitzearen bidez hirugarren sektoreko jarduerak (turismoa, kultur eta gizarte-jarduerak) sustatzea eta udalerrriko merkataritza-sektoreari berariaz laguntzea (lokalak sortzeko eta birgaitzeko programak, herriguneak, plazak eta erdialdeko kaleak oinezkoentzat bihurtzea gizartea eta hirugarren sektorea garatzeko) helburu duten jarduerak. *Gernika-Lumon* udalerrriko turismoa nahiz merkataritza sustatu nahi dira, Jai-Alai leheneratzearen eta berorri balioa ematearen bidez eta azokaren estalkiaren bidez. *Agurainen*, kultur zerbitzuak eskaintzeaz gain, herrigune historikoan jarduerak egitea sustatuko da, eskola zaharrak birgaitzeari esker. *Zumaian* Torreberri berreraikitzeke proiektua dute, eta horrek aukera eskainiko du bertako turismo-eskaintza areagotzeko. *Mutrikun*, bestalde, udalerrrian giltzarri diren bi ekipamendu birgaituko dituzte, udaletxea eta merkatu-plaza, herrigune historikoan kokatutakoak biak ere.

Horrezaz gain, *Villabona*, *Iurreta*, *Legorreta*, *Lemoiz*, *Zalla*, *Mungia*, *Mutriku* eta *Amorebietan* herriguneak, plazak eta erdialdeko kaleak birgaitzeko eta oinezkoentzat bihurtzeko jarduerak egingo dituzte, gizartea eta hirugarren sektorea garatzen laguntzeko.


Amaitzeko, esku hartzeko zonaldeetan turismoa sustatzearekin lotura estua duten jarduerak ditugu 2004-2008 aldirako Izartu programaren deialdiaren baitan. Esparru honetako berariazko proiektuak ditugu, mendi-ibiliak egiteko ibilbideak esate baterako. *Basaurin* Nerbioi ibaiaren ertzak leheneratzea eta oinezkoentzako aisiarako espazio

berriak prestatzea proposatu da, horiek lehendik ibaiaren inguruan zeudenekin lotzeko. *Artzentalesen* herriguneetatik barrena doazen garai bateko udal-bideak leheneratzeari eskaini diote arreta, horietan barrena ibiliak egiteko ibilbideak prestatzeko.

5.2.5. Hiriaren irudia eta egoera hobetzea:

2001-2005 aldirako Izartu programari dagokionez, hauxe da jarduera-kopuru eta inbertsiorik handiena beretu duen helburua. Helburu honetan barne hartutako jarduerak askotarikoak dira: berriz urbanizatzeko eta hiri-azpiegiturez hornitzeko ekintzak (auzoak eta kaleak berriz urbanizatzeko lanak eta zerbitzu- eta hornidura-sareak berritzea); hiriaren irudia hobetzeko proiektuak (eraikin bereziak, herrigune historikoak, etxebizitzak eta fatxadak) birgaitzea eta espazio eta ekipamendu publikoak hobetzera eta horiek gehiago erabiltzera bideratutako hainbat jarduera (kaleak oinezkoentzat bihurtzea, hurbilerraztasunaren inguruko programak eta abar). Aurreko urtean bezalaxe, hiriaren irudia hobetzeko jarduerak garatu dira gehien. Horien ondotik ditugu berriz urbanizatzeko eta hiri-azpiegiturak berritzeko jarduerak.

37. grafikoa: Hiri-kalitatea eta -ingurunea. Aurrerapena jardueren tipologiaen arabera. 2001-2004.



Bide horretan, honakoak dira nabarmentzekoak: birgaitzeko 324 proiektu (etxebizitzak nahiz eraikinak), 58.646 m²-ko azalera berriz urbanizatzea, zerbitzu-sareen 20.000 m lineal baino gehiago berritzea, 4.000 m lineal oinezkoentzat bihurtzea eta hirigintza-trabak kentzea eta hurbilerraztasuna hobetzea, 12 udalerritako hainbat ekipamendutara errazago iristeko.

Hori dela medio, asko hobetu da herri eta hiri ugariren irudia, baita horien erakargarritasun sozioekonomikoa eta bertakoen ongizatean eta bizi-kalitatean eragiten duen hirigintza-egoera ere.

Hirialdeak biziberritzeko asmoa (galtzadak, trabak kentzea eta hurbilerraztasuna hobetzea, zerbitzu-sare berriak...) dagoeneko gauzatu da udalerri onuradunetako zenbait auzo eta erdigunetan (narriatutako hiri-inguruetan, herrigune historikoetan...), eta horrek eragin biderkatzailea du ekonomia-jardueran, jarduera hori pizten baitu hautemandako aurrerapenak.

- **Llodion** Larraño auzoa urbanizatu da (6.000 m²). Horretarako, hirigintza-zerbitzu guztiak ordezkatu dira eta sarbide mekaniko berria eraiki da, hurbilerraztasunaren inguruko arazoak gainditzeko. Horrezaz gain, Aretako geltokiaren inguruan aparkaleku publikoa urbanizatzeak (160 aparkaleku gehiago sortu dira) 4.000 pertsona ingururen hurbilerraztasuna hobetu du.
- **Urretxun** erabilera publikoko lorategia egin dute eta oinezkoen nahiz ibilgailuen trafikoa seguruagoa izatea ahalbidetzen duen bide berria egin eta ireki da oinezkoentzat. Horrezaz gain, etxolak desagerrarazi dira eta merkataritza-irudia hobetu da. Horrela, jende gehiagok erabiltzen ditu esku-hartzeen xede izan diren espazioak (1.530 m²-ko espazio publikoa leheneratu da, 85 ml-eko oinezkoentzako kalea egin da eta sare elektrikoaren 600 ml hobetu dira, 332 ml-eko bidea ireki da, hornidura-sarean 40 ml hobetu dira, 860 m² galtzada eta 390 m² espaloi birgaitu dira eta 150 m² eraikin eraitsi).
- **Mendaron** saneamenduko eta ur-hornidurako sarean izandako eraberritzeek 138 etxebizitzatan izan dute onura eta hornidura elektriko sarean egindako hobekuntzak bertako biztanle guztien onerako izan dira.
- **Elgoibarren** 150 m eskailera eraiki dituzte, baita haurrak jolasteko 130 m²-ko eremua ere.
- **Legazpin** 4.660 m² urbanizatu dituzte udalerriaren erdigunean (udaletxearen atzealdean), eta gisa horretan udalerrian narriatuen zegoen eremuetako bat leheneratu dute.
- **Tolosan** bi kale eta bi plaza birgaitu dituzte gunen historikoen irizpideei jarraiki, eta horrek nabarmen hobetu du hiriaren irudia.

Etxebizitza eta eraikin berezietan birgaitzeko egindako prozesuen eta hiri-ekipamendu berrien (oinezkoentzako pasealeku, plaza eta lorategien) ondorioz hirialdeak edertzeari esker eta hiri-azpiegituretan egindako hobekuntzak direla eta, oparotasun-sentipena piztu da, eta horixe da eremu horiek gizarte, ekonomia eta hiriaren ikuspegitik biziberritzeko benetako oinarri edo eragilea.

- **Bilbao Zaharrean** gora doa bertan bizi direnen kopurua (44 gehiago), batez ere auzo horretara bizitzera joan diren gazteena, Izartu programaren, etxebizitzak eta lokalak birgaitzearen eta narriatuen diren eraikinetako batzuen itxura hobetzearen bidez. Gizartea ohartzen ari da higiezinak zaintzearen eta hobetzearen garrantzia. Hobekuntza horien artean ditugu gas naturala eta igogailua jartzea eta bertako elementu arkitektonikoei dagokien balioa ematea. Horrezaz gain, Bilbao Zaharra lehentasunezko leku bihurtu da beren lehen etxebizitzaren bila dabiltzan gazteen artean, eta horrek ingurua suspertzen du. Merkataritza-lokalak birgaitzeko eta egokitzeko jarduerak sustatzen hasi dira. Azkeneko 4 urteetan egindako esku-hartze guztien %50 baino gehiago ezarpen berriak ditugu. Hori dela eta, merkataritza-jarduera gora doa, nahiz eta etxabeen balioa ere gorantz joan (2005eko urtarrilean beste 7 ezarpen egiteko eskaera irmoak jaso dira).
- **Orduñan** 2 espazio publiko leheneratu dituzte, plaza berria eraiki dute eta ibilgailuen trafikoa mugatu dute herrigune historikoko hamabi kaletan.
- **Sestaon** 6 eraikin birgaitu dira, osorik edo zatiren bat. 80 familia inguru izan dira hobetzeko lan horien onuradun.
- **Güeñesen** nabarmen hobetu da bertako bizitegi-auzo bat, berorri birgaitzearen bidez. Hiriaren itxura eta etxebizitzaren bizigarritasuna %62 hobetu dela esan genezake.
- **Mutrikun** narriatutako 1.802 m²-ko azalera leheneratu da komunitate-erabilerarako. Horrek ingurumena hobetzen lagundu du 1.102 m²-ko ingurune batean.
- **Gernika-Lumon** industria-aurriak eraitsi dira eta horren bidez 1.200 m²-ko ingurua berreskuratu da.
- **Deban** Soroazabal pasealekuko baranda eta Arrantzale kaleko eserlekuak birgaitu dituzte. Gainera, harrizko 14 eserleku eskuratu dituzte.
- **Portugalete Azetan** Soterako oinezkoentzako pasabide berriak 4.300 laguni egin die onura (auzoen arteko kohesioa, bide-segurtasuna eta komunikazioak).
- **Loiun** udalerriko biztanleak elkartzeko 4.886 m²-ko azalera sortu dute Larrondo auzoan. Gainera, erabilera publikoko eta balio anitzeko eremua urbanizatu dute jolasaren, jaien eta kulturaren inguruko jardueretarako.

- **Amurrion** El Salvador eraikina birgaitzeko lanen %90 egin dituzte eta parke tematiko bat egiteko lanei ekin diete.
- **Erreterian** Arramendi pasealekuko lanak hasi dituzte eta 122.478 m² parke birgaitu dituzte. Gainera, naturaren inguruko interpretazio-eraikina amaitu dute.
- **Erandion** 5.845 m² galtzada eta espaloi birgaitu dituzte, 1.227 ml bide zuzenean egin dituzte, 510 ml kale oinezkoentzat bihurtu dituzte eta 22.344 m²-ko azalera urbanizatzea lortu dute.

2004-2008 aldirako Izartu programaren deialdian aurkeztutako programei dagokienez, ez da aldatu diruz lagundutako jardueren izaera: hirigintza-hobekuntzak egitera bideratutako esku-hartzeak (oinezkoen hurbilerraztasuna, hirigintza-trabak kentzea...), herrigune historikoak leheneratzeko proiektuak eta edertzeko eta hiri-azpiegiturak hobetzeko programak (saneamendua, ur-hornidura, argiak, gasa). 40 bat udalerrik dute helburu honen inguruko jardueraren bat. Proiektuei jarraiki 20.000 m lineal baino gehiagoko kanalizazioak egingo dira zerbitzu eta horniduretarako eta 350.000 m² baino gehiagoko azalera urbanizatuko da berriz auzoetan eta erdialdeko kaleetan.

Norabide horretan, *Bergara, Derio, Segura, Artzentales, Mungia, Arrigorriaga, Agurain, Otxandio, Elgoibar, Bermeo, Tolosa, Erandio* eta *Zegamak* programatu dituzte kale eta auzoetako hirigintza-egoera hobetzearekin zerikusia duten jarduerak. Esku-hartzeak egingo dira berariazko zenbait eremu berriz urbanizatzeko, eta hornidura publikoak eta ekipamenduak errazago jartzeko espazioak sortuko dira. Horrezaz gain, *Oiartzun, Sestao, Donostia* eta *Etxebarrin* izaera sozio-komunitarioko espazioak (berdeguneak, parkeak edo jolas-erabileretarako eremuak) areagotzeko jarduerak hartu dituzte barne.

Bestalde, udalerrri batzuek jarduera berariazkoagoei heldu diete, oinarrizko azpiegitura jakin batzuei heldu baitiete, saneamendu-sareari, ur-hornidurarako sareari, argi publikoei eta gasari esate baterako (*Otxandio, Turtzioz, Basauri, Artzentales, Zierbena, Zegama, Areatza, Abanto Zierbena, Amorebieta-Etxano, Hondarribia, Igorre, Karrantza* eta *Astigarraga*).

Azpimarratzekoak dira, halaber, zabor-edukiontzia lurpean sartzeko jarduerak, hondakinak bide publikoan metatzea eta begi-inpaktua murriztera bideratutakoak. Horiek *Eskoriatza, Iurreta, Turtzioz, Balmaseda, Zeanuri* eta *Abanto Zierbena* egingo dira.

Elgoibar eta Mallabiko udalek edertzeko jarduerak egingo dituzte, hiriaren irudia eta ingurumen-kalitatea hobetzeko xedearekin, eta *Oiartzun, Hernani, Ugao-Miraballes* eta *Azpeitian* mugikortasun iraunkorra sustatzeko eta bertako pilaketa arintzeko jarduerak programatu dituzte. Amaitzeko, *Eskoriatza* eta *Trapagaranen* pantaila akustikoak egitea aurreikusi da zaratak eragindako ingurumen-eragina murrizteko. *Ugao-Miraballes* udalerrian, berriz, isuri atmosferikoak kontrolatzea nabarmentzen da programatutako jardueren artean.

5.2.6. Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak:

Amaitzeko, 2004an, helburu honetan barne hartutako jardueren tipologiari jarraiki (ekipamenduak birgaitzea eta/edo eraikitzea eta horiek egokitzea eta gizartearen, kulturaren eta abarren inguruko tokiko zerbitzuak eskaintzea), udal-zerbitzuen eskaintzaren ingurukoak dira berriz ere Izartu I programak izandako aurrerapenik handienak. Jarduera horiek ez dira lokal edo eraikin berriak egitearen mendeko, eta hori dela eta aurrerapena ekipamendu berri horiek eraikitzerakoan izandakoa baino handiagoa da. Honakoak dira lorpen nagusietako batzuk: **hornidura berriekin eta prestatutako zerbitzuekin zerikusia duten 68 lanpostu sortu dira; 14.515 m²-ko azalera egokitu da hirugarren sektorerako ekipamendu berri horietarako eta azpiegitura horien erabiltzaileen kopurua urteko 30.767 lagunekoa izatera iritsi da.**

38. grafikoa: Ekipamenduak eta zerbitzuak. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2004.



Giza eta gizarte-garapenerako aukera-berdintasuna areagotzea (batez ere kaltetuen diren taldeen artean), herritar guztiak komunitatean garatzeko aukerak hobetzea eta hirugarren sektoreko jarduera garatzea dira helburu honen baitan antzematen ari garen eragin nagusietako batzuk. Dena dela, eragin horiek kualitatiboak dira, kuantitatiboak baino gehiago, eta epe luzeagoan ikusi ahal izango dira.

Bestalde, dagoeneko ekipamendu berriak erabilgarri dituzten kasuetan, arrakasta xede dituzten erabiltzaileen parte-hartzearen, erabileraren eta asetahun-mailaren arabera

da: adineko, emakumezko, immigrante eta gizartean baztertuta dauden edo baztertuta egoteko arriskua duten pertsonen laguntzeko ekipamendu eta zerbitzuak, gazteentzako, kultur taldeetarako eta oro har herritar guztientzako kultur- eta jolas-hornidurak, hirialdeak biziberritzeko jardueren eragina izango dutenei nahiz laguntza eta programen onuradunei informazioa emateko udal-zerbitzuak, eta abar.

- *Bide horretan, **Bilbao Zaharrean**, aurreko ekitaldietan garatu ziren bost programa sozialen ondotik (immigrante eta errefuxiatuen integrazioa, baztertutako taldeak berriz integratzera bideratutako prestakuntza osatua, adingabeen eta baztertzeko arriskuan diren familien arreta, droga-mendekoen prebentzioa eta gizarteratzea eta berdintasun-plana), Mariaren Bihotza eliza aisia eta kulturarako azpiegitura gisa birgaitzeko eta egokitze lanak amaitu dira. Horri esker, Bilbaoko biztanle guztientzat kultur erakargarritasuna izango duen beste ekipamendu bat izango du auzoak.*
- ***Legazpin** 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzako gazte txokoa jarri da abian, eta gazteen parte-hartzeak iguripen guztiak gainditu ditu. Gainera, musikarekin zerikusia duten kultur elkarteetarako lau lokal prestatu dira.*
- ***Irunen** 2004an hiru azoka egin dira, azokaren udal-proiektuaren baitan. Horiez gain, beste hainbat ekitaldi ere egin dira, enpresa-bilkurak, musika-ekitaldiak eta abar, esate baterako. Bistakoa da zerbitzuen ekonomia-jarduera garatu egin dela ekipamendu honen sorreraren bidez, eta gainditu egingo da aurreikusitako eraginaren lorpen-maila.*
- ***Mutrikun** beste hiru gizarte- eta kultura-ekipamendu prestatu dituzte, hau da, Eguneta musika-eskola, Zabel jauregiko kultur etxea eta Luardo etxea.*
- ***Leioan** nabarmentzekoa da 2002ko Izartu programaren baitan gaitu zen balio anitzeko erakusketa-aretoak izan duen harrera.*
- ***Mendaron** 2004an gizarteratzeko programa bat garatu dute eta berorren bidez 18 laguni eskaini zaie arreta.*
- ***Zegaman** ia amaituta dute balio anitzeko Olaran zentroaren proiektua. Horren bidez osasun-zentroa, gizarte-egoitza (erretiratuen etxea) eta eguneko zentroa jarriko dira abian, eta eguneko 300 erabiltzaile baino gehiago izango ditu. Une honetan tutoretzapeko 2 etxebizitza ari dira eraikitzen bertan.*
- ***Barakaldo Gurutzetan** 11 km birgaitu dira aisiarako eremu gisa, garapen komunitarioa sustatzeko.*

- **Sestaon 2.268** onuradun izan ditu Izartu programaren baitan Txabarri- El Sol inguruetan egin beharreko hirigintza-planei buruzko informazioa emateko bulegoak.

Amaitzeko, 2004-2008 aldirako Izartu programen onuradun diren udalerriei dagokienez, ondorengo jarduerak hartu dira barne helburu honetan: jarduera-eremuak gizarte eta laguntzaren esparruko ekipamenduz hornitzea, hainbat eraikin eta lokal ekipamendu horietarako eraikitzearen, zabaltzearen edo leheneratzearen bidez. Horiez gain, ezintasun fisikoren bat dutenak edo iristeko bestelako arazoak dituztenak zenbait hornidura publikotara hurbiltzeko aukerak hobetzeko jarduerak ditugu. Esperotako emaitzen artean gizarte eta kulturaren esparruko erabileretarako 20.000 m² baino gehiagoko azalera (sei ekipamendu berritarako baliatuko dena) azpimarratuko genuke.

Bide horretan, *Derioko* udalak kultur elkarte eta taldeetarako erabilera anitzeko espazioa sortuko du, Larrabarri baserria berreraikitzearen bidez. *Ugao-Miraballesen* ere lokal sozialak gaituko dira bertan eraikiko den eraikin batean. *Erandion* gizarte eta laguntzaren inguruko erabilera izango duen ekipamendua eraikiko da (osasun-zentroa, 3. adinekoak, gizarte-zerbitzuak). *Donostian* ere beste gizarte-etxe bat sortuko da, eta bertara eramango dituzte gizarte-zerbitzuetako batzuk eta bertan gaituko dira gizartearen eta kulturaren inguruko erabilera anitzetarako beste espazio batzuk. *Markina-Xemeinen* udal-liburutegia handitzeko asmoa dute, gero eta herritar gehiagok eskatzen eta erabiltzen dutelako kultur hornidura hori. *Igorren* hiru solairuko kultur etxe berria egingo dute, ekitaldi-areto, liburutegi eta areto balioanitz eta guzti. *Elorriion* hiri-erdiguneko espazio bat leheneratu nahi dute kultur etxea eta liburutegia sortzeko.

Ugao-Miraballes eta *Zierbenan* zenbait hornidura publikotarako (hondartzarako, hiri-ekipamenduetarako) hurbilerraztasuna areagotzera bideratutakoak izan dira helburu honen baitako jarduerak. Batez ere mugikortasun-arazoak dituzten pertsonei bideratutako ekintzak izan dira.

Amaitzeko, *Mutrikun* aukera-berdintasunen gaineke plana ezarriko da, emakumezkoen bideratutakoa, emakumeak gizarte-esparru guztietan eta, bereziki, lan-merkatuan barne hartzea xede duena.



1. ERANSKINA

IZARTU programen finantza-koadroak

Programas Izartu 2001-2005	INVERSIÓN TOTAL	%	SUBVENCIÓN	POBLACIÓN BENEFICIARIA	INVERSIÓN POR HABITANTE	PLANIFICACIÓN Y EJECUCIÓN DEL GASTO												% DE GASTO ACUMULADO 2001-2004 SOBRE LA INVERSIÓN TOTAL	AÑO 2005	AÑO 2006	AÑO 2007
						AÑO 2001			AÑO 2002			AÑO 2003			AÑO 2004						
						EJECUCIÓN		PLANIFICACIÓN	EJECUCIÓN		PLANIFICACIÓN	EJECUCIÓN		PLANIFICACIÓN	EJECUCIÓN						
						TOTAL	% SOBRE PLANIFICACIÓN 2001		TOTAL	% SOBRE PLANIFICACIÓN 2002		TOTAL	% SOBRE PLANIFICACIÓN 2003		TOTAL	% SOBRE PLANIFICACIÓN 2004					
TOTAL	221.537.287 €	66%	150.253.028 €	348.597	545 €	33.077.277 €	14.110.980 €	43%	78.812.402 €	34.539.510 €	44%	65.636.033 €	46.286.194 €	71%	49.330.525 €	37.904.665 €	77%	60%	38.878.686 €	8.872.813 €	865.810 €
ALAVA	9.327.739 €	75%	6.995.805 €	29.447	317 €	1.189.996 €	64.848 €	5%	3.202.026 €	789.117 €	25%	2.806.298 €	1.586.829 €	57%	2.837.116 €	1.581.941 €	56%	43%	1.160.195 €	- €	- €
Cantábrica Alavesa	9.327.739 €	75%	6.995.805 €	29.447	317 €	1.189.996 €	64.848 €	5%	3.202.026 €	789.117 €	25%	2.806.298 €	1.586.829 €	57%	2.837.116 €	1.581.941 €	56%	43%	1.160.195 €		
AMURRIO	4.663.869 €	75%	3.497.903 €	9.753	478 €	208.084 €	64.848 €	31%	1.046.507 €	352.771 €	34%	1.287.159 €	996.220 €	77%	1.804.126 €	1.131.496 €	63%	55%	461.230 €		
LLODIO	4.663.869 €	75%	3.497.902 €	19.694	237 €	981.912 €	- €	-	2.155.519 €	436.346 €	20%	1.519.139 €	590.609 €	39%	1.032.990 €	450.445 €	44%	32%	698.965 €		
GIPUZKOA	70.310.183 €	58%	43.820.392 €	109.400	643 €	8.971.005 €	5.779.111 €	64%	23.624.810 €	12.731.817 €	54%	21.652.581 €	15.065.184 €	70%	11.830.083 €	9.057.562 €	77%	61%	15.812.029 €	5.439.645 €	46.954 €
Bajo Bidasoa	6.053.627 €	50%	3.026.814 €	4.257	1.422 €	1.178.809 €	667.451 €	57%	4.484.520 €	2.379.040 €	53%	517.260 €	1.901.541 €	368%	- €	39.754 €		82%	- €	1.105.596 €	- €
IRUN	6.053.627 €	50%	3.026.814 €	4.257	1.422 €	1.178.809 €	667.451 €	57%	4.484.520 €	2.379.040 €	53%	517.260 €	1.901.541 €	368%	- €	39.754 €		82%	- €	1.105.596 €	
Bajo Deba	21.210.263 €	75%	15.907.697 €	29.413	721 €	945.993 €	2.262.288 €	239%	5.979.763 €	4.154.187 €	69%	6.130.121 €	3.903.341 €	64%	3.537.415	3.206.974 €	91%	64%	5.451.117 €	1.800.000 €	46.954 €
DEBA	2.421.263 €	75%	1.815.947 €	5.127	472 €	318.536 €	158.620 €	50%	96.810 €	129.053 €	133%	646.088 €	1.373.140 €	213%	986.955 €	569.620 €	58%	92%	532.790 €		
EIBAR	3.496.962 €	75%	2.622.721 €	4.274	818 €	195.930 €	49.764 €	25%	367.241 €	43.093 €	12%	801.349 €	22.379 €	3%	16.784 €	16.784 €	100%	4%	1.517.987 €	1.800.000 €	46.954 €
ELGOIBAR	3.411.395 €	75%	2.558.546 €	10.732	318 €	431.527 €	- €	-	1.202.024 €	1.004.572 €	84%	1.041.754 €	42.254 €	4%	376.069 €	333.195 €	89%	40%	1.939.959,29 €		
MENDARO	2.688.307 €	75%	2.016.230 €	225	11.948 €	2.872.952 €	323.291 €	11%	1.098.796 €	343.263 €	31%	914.247 €	966.744 €	106%	397.111 €	430.794 €	108%	77%	627.523 €		
MUTRIKU	3.587.230 €	75%	2.690.423 €	4.774	751 €	159.268 €	813.469 €	511%	939.345 €	939.345 €	100%	1.278.208 €	584.092 €	46%	435.113 €	860.292 €	198%	89%	121.095 €		
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	5.605.106 €	75%	4.203.830 €	4.281	1.309 €	138.855 €	917.144 €	661%	2.275.547 €	1.694.861 €	74%	1.448.475 €	914.732 €	63%	1.325.382 €	996.290 €	75%	81%	711.762 €		
Cinturón oriental	13.450.938 €	75%	10.088.204 €	28.617	470 €	- €	227.695 €		3.941.710 €	1.929.947 €	49%	3.148.890 €	2.336.813 €	74%	3.495.830 €	1.544.043 €	44%	45%	3.058.739 €	- €	- €
ERRETERIA	4.483.333 €	75%	3.362.499 €	20.194	222 €	780.207 €	227.695 €	29%	1.147.004 €	1.241.405 €	108%	1.065.363 €	1.322.773 €	124%	733.777 €	695.750 €	95%	78%	1.308.306 €		
LEZO OIARTZUN	4.035.752 €	75%	3.026.814 €	5.753	702 €	877.478 €	- €	-	938.781 €	276.230 €	29%	881.502 €	899.141 €	102%	1.397.535 €	535.158 €	38%	42%	817.933 €		
PASAJA	4.931.854 €	75%	3.698.890 €	2.670	1.847 €	917.144 €	- €	-	1.855.925 €	412.313 €	22%	1.202.024 €	114.899 €	10%	1.364.517 €	313.135 €	23%	17%	932.500 €		
Donosti	10.070.573 €	50%	5.035.287 €	17.476	576 €	805.646 €	26.035 €	3%	3.691.225 €	10.117 €	0%	6.097.268 €	2.253.524 €	37%	587.791 €	694.421 €	118%	30%	4.585.491 €	2.534.049 €	- €
DONOSTIA ALTZA	4.689.728 €	50%	2.344.864 €	10.999	426 €	375.178 €	20.725 €	6%	1.477.599 €	10.117 €	1%	2.990.035 €	2.200.602 €	74%	552.530 €	585.303 €	106%	60%	1.858.513 €	47.241 €	
DONOSTIA LOIOLA	5.380.845 €	50%	2.690.423 €	6.477	831 €	430.468 €	5.310 €	1%	2.213.627 €	- €	0%	3.107.233 €	52.922 €	2%	35.261 €	109.118 €	309%	3%	2.726.978 €	2.486.808 €	
Goierni	15.623.493 €	50%	7.811.746 €	26.978	579 €	2.855.502 €	2.129.174 €	75%	4.225.945 €	3.159.103 €	75%	4.602.052 €	3.608.446 €	78%	3.610.755 €	1.958.898 €	54%	69%	2.184.427 €	- €	- €
LEGAZPI	4.035.281 €	50%	2.017.641 €	9.278	435 €	322.823 €	361.998 €	112%	877.972 €	1.026.911 €	117%	1.382.635 €	1.492.093 €	108%	733.235 €	358.783 €	49%	80%	718.617 €		
ORDIZIA	3.348.395 €	50%	1.674.198 €	9.222	363 €	580.980 €	583.952 €	101%	989.155 €	689.165 €	70%	1.366.535 €	1.003.941 €	73%	409.799 €	620.477 €	151%	87%	45.000 €		
URRETXU	2.018.346 €	50%	1.009.173 €	417	4.840 €	550.278 €	196.191 €	36%	917.393 €	665.807 €	73%	866.810 €	144.380 €	17%	549.582 €	772.254 €	141%	88%	191.122 €		
ZEGAMA	3.007.067 €	50%	1.503.534 €	1.300	2.313 €	1.144.269 €	968.005 €	85%	1.118.105 €	777.220 €	70%	962.031 €	962.032 €	100%	114.932 €	207.384 €	180%	97%	184.879 €		
ZUMARRAGA	3.214.403 €	50%	1.607.201 €	6.761	475 €	257.152 €	19.027 €	7%	323.319 €	- €	0%	24.040 €	6.000 €	25%	1.803.208 €	- €	0%	1%	1.044.809 €		
Tolosa	3.901.289 €	50%	1.950.645 €	2.659	1.467 €	312.103 €	466.468 €	149%	1.301.647 €	1.099.424 €	84%	1.156.990 €	1.061.519 €	92%	598.292 €	1.613.471 €	270%	109%	532.256 €	- €	- €
TOLOSA	3.901.289 €	50%	1.950.645 €	2.659	1.467 €	312.103 €	466.468 €	149%	1.301.647 €	1.099.424 €	84%	1.156.990 €	1.061.519 €	92%	598.292 €	1.613.471 €	270%	109%	532.256 €		
BIZKAIA	141.899.365 €	64%	99.436.831 €	209.750	677 €	22.916.277 €	8.267.021 €	36%	51.985.566 €	21.018.577 €	40%	41.177.154 €	29.634.182 €	72%	34.663.325 €	27.265.162 €	79%	61%	21.906.462 €	3.433.168 €	818.856 €
Alto Nervión	23.009.996 €	75%	17.257.498 €	25.738	894 €	5.671.810 €	1.036.419 €	18%	11.059.737 €	4.093.784 €	37%	5.945.684 €	7.149.685 €	120%	3.799.098 €	3.293.537 €	87%	68%	2.107.500 €	721.215 €	- €
ARRIGORRIAGA	6.298.104 €	75%	4.723.578 €	3.634	1.733 €	2.742.499 €	86.309 €	3%	4.094.493 €	1.518.993 €	37%	1.199.304 €	2.702.574 €	225%	566.371 €	452.241 €	80%	76%	702.643 €	721.215 €	
BASAURI	6.767.312 €	75%	5.075.485 €	16.510	410 €	1.251.105 €	438.739 €	35%	3.682.418 €	462.367 €	13%	2.060.547 €	1.759.006 €	85%	884.548 €	2.048.752 €	232%	70%	288.486 €		
ETXEBARRI, ANT. SAN ESTEBAN-ETXEBARRI	2.528.463 €	75%	1.896.347 €	2.333	1.0																

Programas Izartu 2004-2008	INVERSIÓN TOTAL	%	SUBV.	SUBVENCIÓN	POBLACIÓN BENEFICIARIA	INVERSIÓN POR HABITANTE	PLANIFICACIÓN Y EJECUCIÓN DEL GASTO							
							PLANIFICACIÓN	AÑO 2004		% DE GASTO ACUMULADO SOBRE LA INVERSIÓN TOTAL	AÑO 2005	AÑO 2006	AÑO 2007	AÑO 2008
								TOTAL	% SOBRE PLANIFICACIÓN 2004					
TOTAL	172.933.904 €	62%		109.000.000 €	439.471	578 €	1.333.335 €	8.218.368 €	616%	5%	28.729.828 €	57.034.512 €	57.369.446 €	28.466.777 €
ALAVA	5.438.098 €	50%		2.719.050 €	5.751	946 €	33.260 €	46.713 €	140%	1%	866.182 €	1.747.590 €	1.824.882 €	966.184 €
Llanada Alavesa	5.438.098 €	50%		2.719.050 €	5.751	946 €	33.260 €	46.713 €	140%	1%	866.182 €	1.747.590 €	1.824.882 €	966.184 €
SALVATIERRA/AGURAIN	2.697.133 €	50%		1.348.567 €	4.006	673 €	16.496 €	46.713 €	283%	2%	429.405 €	866.556 €	905.202 €	479.474 €
VITORIA-GASTEIZ	2.740.965 €	50%		1.370.483 €	1.745	1.571	16.764 €	- €	-	0%	436.777 €	881.034 €	919.680 €	486.710 €
GIPUZKOA	79.566.533 €	63%		45.910.511 €	178.969	445 €	561.598 €	2.870.360 €	511%	4%	13.921.396 €	26.892.453 €	25.827.193 €	12.363.892 €
Alto Deba	16.064.253 €	35%		5.432.614 €	21.465	748 €	66.454 €	536.612 €	807%	3%	2.843.370 €	5.415.264 €	5.582.731 €	2.156.434 €
ANTZUOLA	3.899.956 €	30%		1.169.987 €	1.899	2.054 €	14.312 €	28.285 €	198%	1%	880.174 €	1.502.737 €	1.502.733 €	- €
ARRASATE/MONDRAGÓN	3.066.685 €	50%		1.533.343 €	2.800	1.095 €	18.756 €	68.406 €	365%	2%	491.563 €	988.610 €	1.027.258 €	540.498 €
BERGARA	4.852.280 €	30%		1.455.684 €	14.965	324 €	17.807 €	388.777 €	2183%	8%	787.603 €	1.562.187 €	1.626.600 €	858.083 €
ESKORIATZA	4.245.332 €	30%		1.273.600 €	1.801	2.357 €	15.579 €	51.144 €	328%	1%	684.030 €	1.361.730 €	1.426.140 €	757.853 €
Bajo Bidasoa	4.560.420 €	75%		3.420.315 €	35.322	129 €	41.839 €	16.468 €	39%	0%	1.181.580 €	1.934.677 €	922.940 €	479.384 €
HONDARRIBIA	1.795.041 €	75%		1.346.281 €	1.301	1.380 €	16.468 €	16.468 €	100%	1%	741.072 €	1.037.501 €	- €	- €
IRÚN	2.765.379 €	75%		2.074.034 €	4.206	657 €	25.371 €	- €	0%	0%	440.508 €	897.176 €	922.940 €	479.384 €
Bajo Deba	9.362.146 €	58%		5.304.113 €	19.375	483 €	64.881 €	101.843 €	157%	1%	1.502.412 €	3.027.447 €	3.130.503 €	1.636.904 €
ELGOIBAR	3.637.165 €	50%		1.818.583 €	10.440	348 €	22.245 €	44.395 €	200%	1%	587.516 €	1.177.026 €	1.215.672 €	634.706 €
MUTRIKU	3.232.822 €	50%		1.616.411 €	4.775	677 €	19.772 €	55.280 €	280%	2%	519.506 €	1.043.482 €	1.082.128 €	567.934 €
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	2.492.159 €	75%		1.869.119 €	4.160	599 €	22.864 €	2.168 €	9%	0%	395.390 €	806.939 €	832.703 €	434.264 €
Donostialdea / Donostia San Sebastian	2.473.773 €	75%		1.855.330 €	2.115	1.170 €	22.695 €	- €	0%	0%	392.353 €	800.867 €	826.631 €	431.228 €
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	2.473.773 €	75%		1.855.330 €	2.115	1.170 €	22.695 €	- €	0%	0%	392.353 €	800.867 €	826.631 €	431.228 €
Cinturon occidental	10.307.646 €	63%		6.224.845 €	52.390	197 €	76.146 €	1.076.510 €	1414%	10%	1.639.800 €	3.323.562 €	3.452.382 €	1.815.756 €
ANDOAIN	2.156.467 €	75%		1.617.350 €	13.814	156 €	19.784 €	310.890 €	1571%	14%	339.953 €	696.068 €	721.832 €	378.829 €
ASTIGARRAGA	2.862.964 €	50%		1.431.482 €	2.634	1.087 €	17.511 €	39.000 €	223%	1%	457.300 €	921.326 €	959.972 €	506.856 €
HERNANI	3.160.597 €	50%		1.580.299 €	18.747	169 €	19.331 €	726.620 €	3759%	23%	507.359 €	1.019.628 €	1.058.274 €	556.006 €
LASARTE-ORIA	2.127.618 €	75%		1.595.714 €	17.195	124 €	19.520 €	- €	0%	0%	335.188 €	686.540 €	712.304 €	374.065 €
Cinturon Oriental	8.061.855 €	67%		5.120.911 €	14.672	549 €	62.641 €	3.248 €	5%	0%	1.286.077 €	2.606.073 €	2.696.247 €	1.410.819 €
ERRENTERIA	2.545.015 €	75%		1.908.761 €	11.455	222 €	23.349 €	3.248 €	14%	0%	404.118 €	824.396 €	850.160 €	442.992 €
LEZO	1.814.917 €	75%		1.361.188 €	1.935	938 €	16.651 €	- €	0%	0%	283.551 €	583.263 €	609.027 €	322.427 €
OIARTZUN	3.701.923 €	50%		1.850.962 €	1.282	2.888 €	22.641 €	- €	0%	0%	598.408 €	1.198.414 €	1.237.060 €	645.400 €
Goierri	11.832.398 €	65%		7.467.665 €	10.370	1.141 €	91.348 €	151.110 €	165%	1%	2.377.936 €	4.314.701 €	3.305.897 €	1.742.513 €
ATAÚN	1.917.684 €	75%		1.438.263 €	1.514	1.267 €	17.593 €	9.198 €	52%	0%	300.521 €	617.204 €	642.968 €	339.397 €
LEGAZPI	2.949.969 €	50%		1.474.984 €	4.820	612 €	18.043 €	52.283 €	290%	2%	471.934 €	950.062 €	988.708 €	521.222 €
SEGURA	2.319.911 €	75%		1.739.934 €	1.225	1.894 €	21.284 €	44.802 €	210%	2%	366.944 €	750.049 €	775.813 €	405.820 €
ZALDIBIA	2.676.563 €	50%		1.338.281 €	1.517	1.764 €	16.371 €	- €	0%	0%	425.948 €	859.762 €	898.408 €	476.074 €
ZEGAMA	1.968.271 €	75%		1.476.203 €	1.294	1.521 €	18.057 €	44.827 €	248%	2%	812.589 €	1.137.624 €	- €	- €
Tolosaldea / Tolosa	8.653.296 €	75%		6.489.971 €	12.918	670 €	79.387 €	336.219 €	424%	4%	1.380.505 €	2.809.489 €	3.146.434 €	1.237.479 €
IBARRA	2.223.511 €	75%		1.667.633 €	4.208	528 €	20.399 €	324.199 €	1589%	15%	351.025 €	718.211 €	743.975 €	389.901 €
LEGORRETA	1.572.341 €	75%		1.179.256 €	1.351	1.164 €	14.425 €	12.020 €	83%	1%	259.653 €	519.305 €	778.957 €	- €
TOLOSA	2.327.869 €	75%		1.745.901 €	4.083	570 €	21.356 €	- €	0%	0%	368.259 €	752.677 €	778.441 €	407.135 €
VILLABONA	2.529.575 €	75%		1.897.181 €	3.276	772 €	23.207 €	- €	0%	0%	401.568 €	819.296 €	845.061 €	440.443 €
Urola Kosta	8.250.746 €	58%		4.594.747 €	10.342	798 €	56.207 €	648.350 €	1154%	8%	1.317.363 €	2.660.373 €	2.763.428 €	1.453.375 €
AZPEITIA	2.864.031 €	50%		1.432.016 €	4.533	632 €	17.517 €	29.762 €	170%	1%	457.478 €	921.678 €	960.324 €	507.034 €
ORIO	3.509.224 €	50%		1.754.612 €	4.421	794 €	21.463 €	614.366 €	2862%	18%	565.997 €	1.134.770 €	1.173.416 €	613.578 €
ZUMAIA	1.877.491 €	75%		1.408.119 €	1.388	1.353 €	17.227 €	4.222 €	25%	0%	293.888 €	603.925 €	629.688 €	332.763 €
Bizkaia														